

BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA



DEBAGOIENA: IBARREKO ENPRESA BI, GIPUZKOAKO ONENAK /5
KIROLA: ARRASATE-OÑATI LASTERKETA /11

Goienka 2a

EGUBAKOITZA • 2002ko maiatzaren 17a • III. urtea • 65. zenbakia • DOAN BANATZEN



Goienka 2a

XIII. Motozaleen
Kontzentrazioa egin
zuten Arrasaten

ARETXABALETA

Zazpi milioi eta seihun
eurotik gorako aurrekontua
onartu du udalbatzak /5

MARTIN GARITANO

"Euskal esparru
komunikatiboa landu
beharra dugu" /8-9

ERDIALDEAN, BERGARAKO MENDEKOSTE JAIEN GAINEKO GEHIGARRI BEREZIA

Arrate Elkororen ustezko hiltzailea Martuteneko espetxean sartu dute

Arrate Elkororen (argazkian) ustezko hiltzailea, Aitor Mendikute, Martuteneko espetxean dago martitzena ezker. Astelehenean atxilotu zuten ertzainek, Donostiako kirol den da baten. Arrate Elkoro hil zuela



Arrate Elkoro.

aitortu zien Mendikutek ertzainei. Martitzen goizean, Bergarako epaitegian deklaratu zuen eta arratsaldean Martuteneko kartzelan sartu zuten, epaileak aginduta. Elgetarrak lasaiago daude. /4

BADIHARDUGUK GEURE EUSKARAREN GAINEKO LIBURUA ARGITARATU DU

Ibarreko berbeten gainekeko liburua gertu

Gazte izan arren, fruitu oparoak eman ditu dagoeneko gure ibarreko Badihardugu euskara elkar-teak. Eta azkena joan den eguaz-

tenean aurkeztu zuten Mondragoen: *Deba ibarretik Euskararen Herrira* izeneko liburua. 2000ko apirilean sortu zuten Badihardu-

gu, helburu batekin: Deba ibarreko berbetak biziberritzea eta eguneroko bizimoduan galtzen zebilen lekua irabaztea. /2-3

OÑATI

Debagoieneko Turismo Azoka oraingo asteburuan

Oñatin izango da aurten Debagoieneko Turismo Azoka. Halcón bidaia agentziaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen ekimenez antolatzen dute Feritur. Bisitaldi gidatuak ere antolatuko dituzte ibarrean zehar. Bai feriarako sarrera baita bisitaldi gidatuak ere doan izango dira. /5

MENDIA

Hamalagarren zortzimilakoa lortu du Iñurrategik

Alberto Iñurrategik eguenean lortu zuen Annapurnako gailurrera igotzea. Honekin, hamalagarren zortzimilakoa lortu du Albertok. Munduan beste bederatz lagun daude hori lortu dutenak, tartean Juanito Oiarzabal. 14 zortzimilakoetatik 12, Felix anaiarekin egin zituen.



MONIKA BELASTEGI

Jaiak bai! Zikinkeria ere bai?

Dena gertu dago gaur arratsaldean Bergarako jaietako hasiera emateko. Baina dena gertu dago? Bada arazo larri bat: kale garbitzaileek greban jarraitzen dute eta, azkeneko akordiorik ez bada, zikinkeria nagusi izango da Bergarako kaleetan jaietan. Eguaztenean, gutxieneko zerbitzuak adostu zituzten, baina ez da nahiko izango. Nahitaez topatu beharko dute konponbidea. Horregatik, Cespako langileak itxaropentsu ziren eguen eguerdian; azken orduko akordioa egiteko gertu agertu ziren.

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Euskararen

Badihardugu elkarteak Deba ibarreko berbeten g

LEIRE KORTABARRIA

Oso gazte izan arren, fruitu oparoak eman ditu dagoeneko gure ibarreko Badihardugu euskara elkarteak. Eta azkena, joan den eguaztenean aurkeztu zuten: *Deba ibarretik Euskararen Herrira* izeneko liburua.

2000ko apirillean sortu zuten Badihardugu Debagoieneko eta Debabarreneko hainbat euskaltzale eta adituk, talde zein gizabanako, helburu batekin: Deba ibarreko berbeta biziberritzea eta gure eguneroko bizimoduan galtzen zebilen lekua beretako berriro irabaztea. Koldo Zuazo, Juan Martin Elexpuru eta Fernando Muniozguren adituek ipini zituzten oinarri teorikoak; era berean, Debarroko herri bakoitzeko berbeten gaineko lanak hartu zituzten aintzakotzat, eta hortik abiatuta, gure ibarreko berbeten arauak aurkitzen eta finkatzen ahalegindu dira. Eta horretan dabilta lanean oraindik ere.

EPE MOTZERAKO HELBURUAK

Eguaztenean aurkeztutako liburua, *Deba ibarretik Euskararen Herrira*, Badiharduguren jardunean urrats bat gehiago da. Urte osoan, isilpeko lana egiten jarraitzen du elkarteak. Horretarako, hainbat taldetan banatzen du bere lana: batetik, berbeten gaineko ikerketak egin eta arauak finkatzen dituen taldea; bestetik, lan hori jendaurrean plazaratzeaz arduratzen den taldea; eta Berbeta Beroa izeneko talde sortu berria, gazteen euskarazko espresibotasuna indartzeko erronkarekin jaio dena.

Berbeta Beroa berria da, baina beste biek etengabeko lana egin dute elkarteak sortu zenetik hona. Azken batzarrean epe motzerako honako helburuak adostu zituzten bazkideek: irakaskuntzan, euskalkiari tarte bat egin, hezkuntza materiala eskaintzea eta irakasleendako jardunaldietan parte hartzea edo eurek antolatzea; dibulgazio atalari dagokionez, euskaltegiekin, herri komunikabideekin eta udalako euskara sailekin lankidetzak sakondu eta emaitzak lortu; gainera, eskakizun bat presatu dute, Euskaltzaindiak Deba ibarreko berbeta kontuan har dezan, bide batez, batua bera aberasteko.



XABIER URZELAI

'**Deba Ibarretik Euskararen Herrira**' liburua aurkeztu zuten Arrasaten. Iban Arantzabal filologoak eta Badiharduguko kideak egin zuen sarrera. Badiharduguren ibilbidea eta etorkizuna izan zituen hizpide. Ondoren Koldo Zuazo irakasle eta ikertzaileak liburua lehenengo zatiaren berri eman zigun. Esan zituzten artean, euskalkietatik euskara batura egin beharra dagoela eta biak konbidentzian bizi behar dutela Euskal Herrian. Hizkuntza

senara, herriko hizkerak, hizkuntzaren zuzentasuna... landu zituen. Ondoren, Mirian Txintxurreta filologoak liburua bigarren zatiaz jardun zuen eta horretarako 55 lagunen partehartzea zein garrantzitsua izan den azaldu. Lagun horien lanaren nondik norakoa kontatuz amaitu zen hitzaldia. Amaieran, bazkide kanpainaren berri eman zen eta norbait bazkide egiteko gogoz geratu bada idatzi beza euskaraerabiler@deba.net helbidera.



INFORMAZIOA:
Makina Erremintaren institutua
San Roke Auzoa 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. Faxa: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es • www.fmh.es



2002-2003 ikasturtea HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa



ATEAK ZABALIK
maiatzaren 23an
eta ekainaren 5ean
arratsaldeko 19:00etan



Izena emateko epea: ekainaren 3tik 12era, biak barne

n herrira

gaineko liburua aurkeztu zuen Arrasaten

KOLDO ZUAZO / IRAKASLEA, IDAZLEA ETA BADIHARDUGU ELKARTEKO KIDEA

“Euskara batua erabili arren, lekuan lekuko berbei eta egiturei eutsi behar diegu”

Koldo Zuazo eibartarra unibertsitate irakaslea da, eta bai Eibarko bai eta Deba ibarreko berbetak ikertu izan ditu. *Deba Ibarretik Euskararen Herrira* lana aurkeztu zuen eguaztean Arrasaten.

Liburuaren lehen atala zeuk idatzi duzu. Bertan, euskara batua eta euskalkia non, noiz, zelan... erabili behar diren azaltzen duzu.


Nire ustez, bakoitzak bere lekua du. Euskara batua beharrezkoa da: adibidez, udaleko aktak, informeak, txostenak... era horretako idatziak euskara batuaz idatzi beharko lirarteke. Euskalkia, batik bat, ahozko jarduna da. Hortaz, herritarrendako oharra eta antzekoak bertako euskararen idatzi beharko lirartekeela uste dut.

Euskara batua, hizkuntza uniforme?

Ez, ez du zertan berdina izan Deba ibarrean eta Zuberoan; lekuan lekuko berbei eta berezitasunei eutsi behar zaiela deritot. Horrela, euskara batuarekin ditugun konplexuak eta usteak gaindituko ditugu.

Eta Deba ibarrari dagokionez, herri desberdinetako berbetek badute ezaugarri komunik?

Bai, eta horiek deskribatzen



ditut liburuaren lehenengo atalean. Adibidez, bustidurak: *-oa* bukaera *-ua* egitea (*besoa/besua*); *-ea-ia* egitea (*umea/umia*) eta beste hainbat Arrasaten nahiz Mutrikun egiten dira. Liburu honetan, Deba ibarreko berberendako arau batzuk proposatzen ditugu, fonetikan, ortografian, sintaxian...

Eta euskalkian idazterako orduan, berba egiten duguna hartu behar dugu oinarri

moduan?

Hor bi hizkera bereiztu behar dira: alde batetik, lagun arteko hizkuntza dago; bestetik, hizkuntza jasoa. Adibidez, lagun artean *ein* esaten dugu, baina horrek ez du esan gura horrela idatzi behar dugunik; *egin* idatzi behar dugu, baita euskalkian ere. Ez da nahastu behar lagun arteko estiloa euskalkiarekin.


Lekuko komunikabideek zein bide aukeratu beharko

lukete, zure iritziz?

Nik uste dut ahozko komunikabideek herriko euskara erabili behar dutela. Idatzizkoetan, ordea, batuak bertako euskarak baino leku handiagoa hartu beharko luke. Eibarko kasua hartzen dut adibide moduan: han, idatzizko komunikabideetan, %60 euskara batua da, eta %40, Eibarko euskara. Hala ere, batua erabiltzerakoan ere, bertako berbak aukeratu beharko lirarteke: esaterako, *igandea* idatzi beharrean, *domeka*. Hori ere gogora ekartzen saiatu gara liburu berrian; hau da, bertako berbak hobetsi behar direla. Izan ere, denbora luzean, euskaldunok batuarekin obsesionatuta izan gara, eta berba egiteko beste modu asko dagoela ahaztu dugu: alegia, gazteen berbeta, lagun artekoa, umeena... eta horiek ere euren lekua dute liburuan.

Zelan ikusten duzu gazteen hizkera?

Gazteek esapide asko gaztelaniatik kalkatu edo kopiatu egiten dituzte, euskaraz ere badi-tugula ahaztuta. Esapide horiek gogora ekartzen ditugu liburuan. Badiharduguren kezketariko bat da, hain zuzen, gazte hizkera indartzea, gazteek betiko berbak berreskuratzea eta eurak sortzaile bihurtzea. Gazteengandik euren erantzun ona jaso du elkarteak orain arte.



LIBURUA

‘Deba Ibarretik euskararen herrira’

Koldo Zuazok eta Badiharduguko beste hainbat kidek idatzitako liburua dugu. Bi zatitan banatuta dago: lehenengoan, Zuazok euskalkiaren eta euskara batuaren lekua zein den azaltzen du; bigarreanean, Deba ibarreko herrietako berbeta guztiek dituzten antzekotasunekin, euskalkian idazteko hainbat arau proposatzen dira. Deba ibarreko berbetetan erabiltzen diren hitzek osatutako hiztegitxo bat ere badakar liburuak, baita umeen berbari eskaintako tarte bat ere, guztia estilo argi eta ulerterrazean idatzita. Arauon helburua ez da “bizkaiera batu” bat sortzea, arau zorrotzekin, baizik eta “hizkuntzarekin jolas egiteko eta gozatzeko” aukera ematea. Zuzena eta zuzena ez dena izango da muga euskalkian.

EUSKALKIA, ZERTARAKO?

Euskalkitik onura handia atera dezakegu hiztunok

Behar bezala erabilia, euskalkiak honako onurak ekar diezazkiguke, elkartearen esanetan: gurasoen eta seme-alaben arteko transmisioa sendotu; hizkuntzaren sena eta sormena indartu; euskara hobea, zuzenagoa eta indartsuagoa eraiki; eta euskalduntzea errazago eta lasterrago egin daiteke, era horretara, batua bera ere aberastuz.

ASPALDIKO KEZKA

Lehendik bazeuden liburu asko, baina ez bateratuak

Sortu zenean, elkarteak esan zuen atzematen zuela “Deba ibarreko oinarritik euskaldun sentitzeko eta izateko nahia”. Elkarte bera iaz sortu arren, aspalditik izan da hemen bertako euskararekiko kezka, eta herri bakoitzeko berbeten gaineko liburu asko kaleratu dituzte; baina Badiharduguk plazaratu izan ditu lehenengo lan bateratuak.

EUSKARA BATUAREN IZENEAN, “EUSKARA BEREZIA”

Badiharduguk ez du euskara batuaren eta euskalkiaren arteko lehia planteatzen; bakoitzak bere lekua du

Deba ibarreko berbeta indartzeko eta biziberritzeko jaio zen Badihardugu, baina euskalkia eta euskara batua elkarrekin betegarriak direla defendatzen dute. Hori bai, bakoitza dagokion lekuan. Batuari esker, euskara prestigiozko hizkuntza egin da; euskaldun kopurua hazi egin da; alde bateko eta besteko euskaldunak elkarrekin komunikatu gaitzake... hori guztia txalotzen du elkarteak; baina batuaren izenean “oso euskara berezia, egunero berbetatik asko aldentzen zena” erabili izan dela ere kritikatzeko dute: “Gure berbeta, txarra zelakoan, gutariko askok ez diete seme-alabei erakutsi”, esaten du Badiharduguk. Horren ondorioak gazteen hizkeran nabarmentzen ei dira: “Gure euskara pobrea eta indar bakoa begitantzen zaie, eta erdarara jotzen dute sarri”.

ERRONKA UGARI

Euskalkiaren gaineko denetarikoz zerbitzuak

Euskalkia jorratzeari dagokionez, Badiharduguk etengabe jarraitzen du lanean. Hona hemen eskaintzen dituen edo etorkizunean eskaini gura dituen hainbat zerbitzu: ikastaroak, berripapera, web-gunea, liburutegi eta artxibogunea, argitalpen zerbitzua, sariketak, ikerketa bekak, aholkularitza zerbitzua, kontzientziario kanpainak...

Elgetarrak lasaiago daude, Aitor Mendikute Donostian atxilotu eta gero

Arrate Elkoro hil zuela epailearen aurrean aitortu eta gero, Martuteneko espetxean dago Mendikute

ENEKO AZKARATE

Lasaitu ederra hartu dugu debagoiendarrok Arrate Elkororen ustezko hiltzailea, Aitor Mendikute, harrapatu dutela jakin dugunean. Astelehenean atxilotu zuten ertzainek Donostian. Arrate Elkoro hil zuela aitortu zien ertzainei. Martitzen goizean, Bergarako epailearen aurrean deklaratu zuen. Epaileak Arrate Elkoro hil izana leporatu zion eta kartzela-zigorra ezarri zion. Aitor Mendikute Martuteneko espetxean dago martitzen arratsaldetik.

Zergatik hil zuen Arrate Elkoro? Ertzainei kontatutakoaren arabera, pentsa daiteke mende-kuagatik hil zuela: egunen baten ez ziolako tabakorik saldu, edo aspaldiko eztabaidaren batengatik... Mendikute ondo ezagutzen dutenek uste dute lapurreta ez dela izan hilketaren arrazoia.

GOIENKARIA Aitor Mendikuteraren aitarekin izan zen martitzenean. Lur jota ikusi genuen, baina era berean, lasaiago, semea atxilotu dutelako. Horrelako zerbait gerta zitekeela agintariei sarri ohartarazi ziela esan zigun. Semea tximista modukoa dela eta bat-batean edozer gauza egiteko gai dela ere esan zigun.



OXEL EROSTARBE

ARRATE ELKOROREN ALDEKO EKITALDIAK Egubakoitzean egin zituzten, Elgetako parrokiaren, Arrate Elkororen aldeko hileta-elizkizunak. Andre Mariaren eliza leporaino bete zen. Amaieran, kale bilkura egin zuten plazan. Alka-

teak instituzio-adierazpena irakurri zuen: herritar guztien izenean, Arrate Elkororen senitartekoei elkartasuna adierazteaz gain, gertatutakoagatik gogoeta egitea eskatu zion "erakunde publikoei, gizarte taldeei eta, orokorrean, gizarte osoari".

MARIA JESUS LETE / ELGETAKO UDALEKO GIZARTE ONGIZATEKO ZINEGOTZIA

“Aitor Mendikute sarri joaten zen estankora tabakoa erostera, eta Arratek beldur handia zion”

Aitor Mendikuterekin harreman handiena zuen pertsona Gizarte Ongizateko zinegotzi Maria Jesus Lete zen.

Aitor Mendikute astelehenero egoten zen udaletxean zurekin eta gizarte laguntzailearekin. Zertara joaten zen?

Laguntza eskaintzen genion, paper kontuak direla-eta, batez ere. Goizean etortzen zen eta gurekin egoten zen kontuak esaten. Erlojuari begira egoten zen, estankoa noiz zabalduko zain.

Udaletik dirulaguntzarik jasotzen zuen?

Ez, txikitarik ere ez. Caritasek ematen zion dirulaguntza: kartzelan egon den urteetan, 7.000 pezeta hilero, zigarrotarako, eta kanpoan zegoenetik, 20.000 pezeta hilero, bi zatitan.

Eta zelakoa da Aitor Mendikute?

Oso pertsona berezia da eta oso azkarra, ez da batere ergela. Bestalde, oso fantasiosoa da, txori asko ditu buruan, baina ez nuke esango gezurtia denik edo, behintzat, gezurrak nahita esaten dituen horietakoa denik. Gaixoa da.



Elgetarren artean oso zabal-duta dago horrelako zerbait gerta zitekeen ustea.

Nik neuk ez nuen uste horrelako zerbait egiteko gauza izango zenik. Hori bai, ardura handia geneukan. Esaterako, labana erosi zuenean, kezkatu egin ginen.

Noiz erosi zuen labanoi?

Orain dela hilabete pasatxo. Elgetan erosi zuen, Iraman. Saltzaileak ez zuen Aitor ezagutzen. Ordaintzerakoan, Aitorrek berak esan zion saltzaileari zein zen. Saltzailea, hori entzutean, apur bat ikaratu egin zen.

Orain dela hiru bat aste, labanoi erakutsi zizuen zeuri eta gizarte laguntzaileari. Zer egin zenuten?

Labana zabaldu zuen eta galdetu nion ea zertarako erosi zuen. Etxean sastrakak ebakitzeko zela erantzun zidan. Orduan, labana eskutik kendu nion eta ixten ahalagindu nintzen. “Ez, ez, ez da horrela ixten”, erantzun zidan. Eta labana atzeko poltsikoan sartu zuen.

Ustez Arrate Elkoro hiltzeko erabili duena da laban hori?

Ez dakit. Kalem kontu asko dabil bolo-bolo...

Zelako harremana zuen Arrate Elkororekin?

Arratek beldur handia zion Aitorri, eta behin, labana ere erakutsi zion. Arratek berak esan

“Aitor Mendikute oso fantasiosoa da, txori asko ditu buruan, baina ez da batere ergela”

Gertatutakoa, egunez egun

EGUENA 9 / 09:40 / ELGETA

Elgetako estankokoa hil dute

Arrate Elkoro hil egin dute. Bere estankoa erasotu dute. Lau labankada eman diote. Bere kabuz irten da laguntza eske eta herriko hoteleraino heldu da: “Mendikute, Mendikute” oihi egin eta lurrera jausi da. Anbulantzian Mendaroko ospitalera eroan dute, larri, eta ailegatu bezain laster hil egin da.

EGUENA 9 / 11:00 / ELGETA

Ustezko hiltzailearen bila

Ustezko hiltzailea, Aitor Mendikute, estanko aurrean ikusi dute lekukoek, zabaltzeko zain. Baina ihesean ez du inork ikusi. Ertzaintza haren bila hasi da. Hedabide mordo inguratu dira Elgetara.

EGUBAKOITZA 10 / 12:00 / EIBAR

Eibarren ikusi ei dute

Aitor Mendikute Eibarren ikusi dutela zabaldu da. Ertzaintzak Elgeta eta Eibar arteko mendi inguru eta erreka zuloak miazten dihardu.

EGUBAKOITZA 10 / 19:00 / ELGETA

Hileta-elizkizunak

Elgetako parrokiara lepo bete da Arrateri azken agurra emateko. Elizkizunen ostean, kale bilkura egin dute plazan eta alkateak instituzio-adierazpena irakurri du. Mendikute laster harrapatuko dela zabaldu da.

ASTELEHENA 13 / 12:30 / DONOSTIA

Mendikute harrapatu dute

Ertzaintzak Aitor Mendikute atxilotu du Donostian. Ustezko hiltzaileak Eibartik Donostiara egin zuen ihes, trenez, egubakoitzean, eta Loiolako mendi inguruetan gordeta egon da astelehenera arte.

Langabezia kobratzera Egiako aurrezki kutxa batera joan denean atzeman dute. Ia mila euro jaso ditu. Geroago, ertzainek Egiako kirol denda baten atxilotu dute: mendiko botak eta motxila bat erosi nahi zituen Aitor Mendikutek.

MARTITZENA 14 / 15:00 / MARTUTENE

Martuteneko espetxean

Arrate Elkoro hil zuela aitortu die Mendikutek ertzainei. Donostiatik Bergarako epaitegira ekarri dute, segurtasun neurri zorrotzak hartuta, epailearen aurrera. Epaileak kartzela zigorra ezarri dio giza hilketa leporatuta. Bergarako epaitegitik Martuteneko espetxera eroan dute.

Debagoieneko III. Turismo Azoka izango da asteburuan Oñatin

Bidaia agentzien eta gure ibarreko turismo eskaintza ikusgai Zubikoan

ENEKO AZKARATE

Oñatin izango da aurten Debagoieneko Turismo Azoka. Hirugarren aldiz antolatuko dute. Izan ere, aurreko bi urteetan Arrasaten eta Bergaran antolatu dute. Zubikoa kiroldegiko pilotalekuak hartuko du oraingo zapatuan eta domekan Feritur azoka.

Halcón bidaia agentziaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen ekimenez antolatzen dute Feritur. Turismoko 16 enpresak hartuko dute parte. Helburu nagusi bi ditu Feriturek: batetik, bidaia agentzia handien eskaintza eza-gutzera ematea; eta bestetik, gure ibarreko eskaintza turistikoaren

Azoka dela-eta, bisitaldi gidatuak antolatuko dituzte, doan, Debagoienean zehar, asteburuan

berri ematea. Horretarako, hainbat erakustoki ipiniko dituzte eta, bestalde, ibarrean zehar bisitaldi gidatuak antolatuko dituzte, zapatu goizean eta domeka goizean zein arratsaldean. Bisitaldi gidatuetan parte hartu nahi dutenek

Mankomunitateak azokan ipiniko duen erakustokian izena ematea besterik ez dute. Doan izango dira. Bestalde, abian diren ibarreko turismo ekimenen gaineko informazioa eskainiko dute. Feriturek 10:00etan irekiko ditu ateak. Goizez, 14:00ak arte egongo da zabalik eta arratsaldez, 16:00etatik 20:00ak arte. Sarrera doan izango da. Guztira, 20 bat erakustoki jarriko dituzte, enpresa pribatuak zein erakunde publikoak. Azken horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiarena ere bai.

Ferituren aurreko bi aldiek arrakasta handia izan dute. Aldi bakoitzean 4.000 bat lagunek bisitatu zuten azoka.



Metagra eta Fagor Arrasate, Gipuzkoako enpresarik onenak

Debagoieneko enpresak saritu ditu beste behin Gipuzkoako Merkataritza Ganberak. Oraingoan, gure ibarreko enpresa biri eman diete industria saria: Fagor Arrasateri, Gipuzkoako Enpresa Espor-tazaila Onenarena, eta Bergarako Metagrari, Enpresa Txiki eta Ertain Onenarena. Eta urteko Enpresaburu Onenaren saria Eibarko AGMEko Pedro Agirregomezkortari eman diote. Hamargarren urtea da industria sari horiek banatzen direna eta ia aldi guztietan saritu dute Debagoieneko enpresaren bat. Argazkian ikus ditzakezue aurtengo sarituak: Luis Mari Soto eta Jose Luis Agirrezabal Metagrakoak, Luis Untzueta Fagor Arrasatekoa eta Pedro Agirregomezkorta AGMEkoa. /E.A.

BAILARAN LABUR

Maria Josefa Ganuza hil zen Donostian, 89 urte zituela

Maria Josefa Ganuza, Monzonen alarguna, egubakoitzean hil zen, Donostiako Arantzazu Ospitalean, 89 urte zituela. Mokorra apurtu zuela-eta, ebakuntza egin zioten Arantzazu Ospitalean, eta, hasieran ondo bazegoen ere, egubakoitz goizaldean hil egin zen. Haren aldeko hileta-elizkizunak zapatuan egin zituzten, Bergaran.

Manifestaziorako deia egin du Elkarrizketa zaturako

Elkarrizketa manifestaziorako deia egin du zaturako, Bilbon. 17:30ean irtengo da, La Casillatik. Manifestazioaren leloa *Bakea-Elkarrizketa-Berdintasuna* izango da. Helburua da Bake Konferentzia sozialki indartzea, bere fase erabakigarrian. Prozesu horren balantzea ekainean aurkeztuko du Elkarrizketa taldeak.

Urretxuar bat hil da auto-istripuan Antzuolan

Urretxuko 31 urteko gizona bat hil zen eguaztenean Antzuolan, auto-istripuan. Ezbeharrak 14:30ean gertatu zen, auto batek eta kamioi batek elkar jo zutenean. Istripua Antzuolako irteeran, Deskarga igotzen hasten den tokian, gertatu zen. Autoa gidatzen zuen mutila, hildakoa, harropatuta gelditu zen ibilgailuan.

HERRIZ HERRI

ARETXABAETA

Zazpi milioi eta seiehun eurotik gorako aurrekontua Batasunaren oniritziarekin

Astelehenean aurkeztu zuten 2002ko udal aurrekontua Aretxabaletan. Aretxabaletako Udalak 7.650.975 €-ko gastua zehaztu du. Horri, Urats Gain zaharren egoitzari ematekoa (544.532 €€ eta Aretxabaletako Bihargintzari ematekoa (118.587 €€ gaineratu behar zaizkio; hor-taz, guztira, 8.020.619 €.

DESADOSTASUNAK

Aurkeztutako aurrekontuak, ordea, ez du alderdi guztien oniritzia jaso. Alkateak eta Batasuneko bost zinegotziek baka-rrik eman zioten aldeko botoa; EAJ/EAKo bostek eta PSE-EE-koak, ostera, ezezkoa. PPko zinegotzia ez zen agertu.

Aurrekontuak aztertzen ha-

si zirenetik izan dira desadostasunak udalbatza osatzen duten Batasuna eta EAJ/EA taldeen artean. Batasunak kulturarako aretoaren aldeko apustua egin du, eta horretarako milioi bat euroko inbertsioa zehaztu du. EAJ/EAK diru asko dela iritzi dio, eta inolako adostasunik ez denez lortu, aurrekontuei ezezkoa eman dio EAJ/EAK.

Kultura aretoaz gainera, lur-sailak erosteko 661.113 € zehaztu dituzte, eta industria pabilioi bat erosteko 390.660 €. Lanpostu bat ere kaleratuko dute, udaltzain lanpostua, hain zuzen. Ikusi egin behar aurreikusita-ko guztia betetzerik duten, kasu batzuetan gehiengo absolutua beharko da-eta. /M.A.

ARRASATE

Botikak birziklatzeko edukiontzia daude Arrasateko farmazietan

Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako ekimenarekin bat eginez, Arrasateko farmazietan ere botikak birziklatzeko edukiontzia ipini dituzte orain dela hilabete inguru. Orain, Udalak kanpaina hori bultzatu eta indartu gura du herritarren artean.

Etxean ditugun botika hondarrak behar ez direnean, berriro ere farmaziara eramateko kanpaina da horixe. Izan ere, ez da komeni botikak zaka-rrontzira botatzea, kontrol barik botaz gero, naturari kalte egingo diotelako.

BAITA IRAUNGITAKOAK ERE

Botika-ontzi hutsak, botiken hondarrak dituzten ontziak bai eta iraungitako botikak euren ontzietan eraman daitezke edukiontzi horietara. Ez, ordea, termometroak, protesiak, orratzak, objektu zorrotzak...

Gero, batutako ontziak birziklatu egingo dituzte eta botiken hondakinak deuseztatu egingo dituzte. SIGRE izeneko sistemak bermatuko du hori egiten dela. Sektore Farmazetikoko Ontziak Kudeatu eta Jasotzeko Sistema Integratua da SIGRE. /UBANE MADERA

ARAMAIO

Manex Agirre aramaioarra bigarren Arabako Bertsolari Txapelketan

Laurehun eta hirurogeita hamabost punturekin bigarren postuan geratu zen Manex Agirre bertsolaria Arabako Bertsolari Txapelketan. Joan den zapatuan izan zen lehiaketa, Gasteizko Printzipal antzokian, eta han izan ziren adituen esanetan, Manex izan da txapelketako errebelazio nagusia.

Manexek kontatu digunez, oso gustura geratu da egindako lanarekin, eta bereziki, herri-kideek emandako berotasunarekin. /UBANE MADERA

BERGARA

Arrano taberna, Artatse elkarte eta bulego bat enbargatu ditu Garzonek

Halaxe eman zuten aditzera Batasuneko kideek martitzenean emandako prentsaurrekoan. Esan zuten, duela aste bat jakin zuten kontuak blokeatuta zizutela; baina harrezkero, "Arrano taberna, Artatse elkarte eta bulego bat enbargatuta daudela jakin izan dugu, nahiz eta oraindik ez dauden itxita". Bestalde, enbarguak apirilaren 29ko data duela aurreratu zuten, hau da, Batasuneko kideen aurkako operazio poliziala egin zeneko. /M.B.

Zabalik

JOSE
ANGEL
MIKEO

Ondo erosi

Urtero ospatzen hasiak gara Nazioarteko Bidezko Merkataritza eguna maiatz erdi inguruan. Aurten, era berezian, "Jantzi Garbia" deitutako kanpaina dago indarrean. Izan ere, denok oso normal soinean daramatzagun hainbat marka ezagunek salmentarekin lortutako irabaziak, inolaz ere ez dira heltzen jertse, fraka, zapatila edo alkandora egin dutenen eskuetara.

"Jantzi Garbia" kanpainak pertsonarenganako errespetua eta milioika langile zapaltzen duenaren kontrako komertzioa bultzatzen du. Jantzen ditugun jantziak Madagaskarren (nire jertsea han eginda dagoela ohartu naiz, nahiz eta enpresa Coruña-koa izan), Indonesian, Indian edo Thailandian eginak daude. Begira iezaiezue zuen erropen etiketei eta harrituko zarete. Ikus nongoa den marka: Lewis, Adolfo Domínguez, Burberry, Zara, Mango, eta abarrek konfektzioa, produkzioa, dute herrialde pobretara eramaena eta irabaziak, ostera, ez dira hara heltzen.

Batek esan zidan lana ematen dietela eta hori eskertzekoa dela, baina lana baldintza berberetan nahiko genuke guztiontzat. Han miseriako soldatak ordaintzen diren era berean, publizitatea egiten kontu ezin ahalako dirutzak joaten dira. Erosle gisa indar handia dugu eta erosle kontzienteak behartu egin dezake edozein marka bidezkoa den eran langileria ordaintzera. Hemengo kontsumitzaileak ez luke asko igarriko prezioetan, irabazien banaketa zentzuzkoagoa eginez hazkuntza ekonomiko eta giza garapen sostengagarria bermatuko bagenu. Gaurko egoeran Nike markako zapatilak egiten dituen langile indonesiarrek euro bat jasotzen du egiten duen zapatila pareko, hemengo denda 100 euro inguru balio duenean. Halako erosketak egiterakotan, zein injustizia bultzatzen dugun ohartuz bakarrik alda dezakegu gaurko merkataritzaren oinarria.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com



ETBko egoitzaren aldaketa

Joan zen apirilaren 17an, ETBko egoitzaren aldaketatik kaltetutako langileok, langileon %63, alegia, batzartuta egon eta gero aldaketaren arrazoiak eta ondorioak aztertu genituen. Handik ateratako balorazioak, beste batzuen artean, honako hauek dira.

1982an, Iurretako egoitza aukeratu zuten ETBko emisio gunetzat. Aukeraketaren arrazoi batzuk hauek izan ziren:

- Herriaren bihotzean egotea.
- Herrialdeak lotzeko komunikazio sare ezin hobea izatea.
- Seinale telebisiboak banatzeko Oiz mendia gertu izatea.

ETBren historiaren 20 urte hauetan arrazoi hauek ez dira inolaz aldatu. 2002ko apirilaren 10ean, EITBko zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzarekin batera Iurretako gunea Bilbora eramatea erabaki du.

Telebistako langileok erabaki hau uste-la dela uste dugu eta ETBko interesak kaltetzen dituela, jarraian azalduko dugunagatik:

Gaur egungo eskema, hau da, emisio gunea elkartearen bihotzean egotea eta korrespondentzaliaren banaketa hiriburuetan izatea, telebista guztiak erabiltzen duten eskema da, edozein lekutan izandako berriak arinago heltzen baitira.

Datu aipagarri gisa hona hemen kaze-tarritza elektronikoa darabilten taldeek (ENG) egin duten irteeren kopurua apirilaren 1etik 31ra. Orotara, irteerak 555 izan dira eta honela banatu dira: Iruñeara, 60; Bilbora, 115; Donostiara, 83; Gasteizera, 101; Bizkaian zehar, 85; Gipuzkoan zehar, 71; Araban zehar, 9; eta, Nafarroan zehar, 27.

Epe berean, erretransmisioak egiteko unitate mugikorren irteerak 30 izanik, hauek 2 bakarrik izan dira Bilbon.

Gure gunetara datozen gonbidatuak direla eta, *Forum* programak, urtarrilaren 1etik gaur arte, jaso dituen datuak kontuan har ditzakegu, hauen arabera elkarrizketatutako %65 ez zetorren Bilbotik.

Datu hauek adierazten dute ETBko gunera edo gunetik egindako bidaiak ez datozela bat egoitza Bilbora aldatzearekin. Aldeantzez, unitate mugikorrek eta gainerako tresneria gaur egungo gunetik, egoki komunikatuta eta sartzeko trafikoa arazorik ez duen gunea honetatik, alegia, eraman beharrean hiriburutik eramateak gastuen gorakada ekarriko lukeelakoan gaude.

Baldintza hauek guztiak kontuan hartu dituzte gainontzeko telebistek; Sogecable (Canal Plus), esaterako, Madrileko gunea utzi eta Tres Cantoseko herrira joan dira, hiriburutik 40 kilometroa.

Egoitza kokatzeko gunea berria dela eta, erakustazokaren 7 eta 8 pabiloiak erabat egokitu behar dira, telebista eta langileak sartu ahal izateko ez baitaude horretarako eginda. Pabiloiak erabiltzeak telebista berri-erakitzea dakar, dagoen azpiegitura ez baita bideragarria, eta noski, honek inbertsioa garestituko luke.

Telebistaren lana egoki aurrera eramateko ezinbestekoa da bitartekoan banaketa era egokian eramatea. Horretarako gaur egungo eskema egokiena dela irizten dugu, Bilboko korrespondentzalia indartzea izango litzateke, Gasteizen eta Donostian egiten ari garen bezala.

ETBren hogeitau urte hauetan seinaleak transmititzeko eta jasotzeko sarea garatu dugu, horrela, ETBko gunea guztiak fibra optikoaren bidez eta lurreko loturen bitartez batu izan ditugu. Komunikazio sare honekin gunea bakoitzean ekoinzerteko eta emititzeko gai izan gara. Emisio gunea Iurretatik Bilbora aldatzeak aipatu sarea berriztatzea ekarriko luke, beharrezkoa ez den gastua sorraraziz.

ETBk badu bere instalazioen zati bat aro digitalerako prestatuta. Emisio gunea, bost kontinuitate digitaletz osatutakoa, erabat digitalizatuta dago. Gaur egun, digitaletzko

kontrol zentrala bukatzen ari gara. Era berean, Iurretako guneko postproduktzio gelak erabat digitalizatuta daude eta beste batzuek osagarri digitalak dituzte.

Telebista erabat digitalizatzek ez du derrigorrez eraikinak zabaltzerik behar, nahikoa da hornidura teknikoak aldatzea.

El Mundo egunkarian agertutakoaren arabera: Tele 5-ek 2.000 milioi pezetako inbertsioa egin du bere erredakzio berrian. Eraikinak 1.500 metro koadroko azalera dauka, 27 bat-bateko edizio gune ditu eta barruan, erredakzio sail desberdinak izateaz gain, aurkezpenerako plato automatizatua dauka. Baita ere, beste gauza batzuen artean, produkzio, dokumentazio, errealtizazio sailak eta mantenimendurako ekipa teknikoak eta postproduktzio gela bi.

Telebistaren irudiak eta herritarrenganako hurbiltze mailak ez du zerikusirik kokapenarekin, baizik eta herritarren beharrei ematen zaion erantzunarekin. Horregatik guztiagatik, ETBko Zuzendaritzaren arrazoiarekin Bilbon ezin da emisio gunea kokatu Euskadiko biztanleria kopuru handien duen hiriburua delako.

Gunearen aldaketak dakartzan ondorioak oso kaltegarriak dira langileontzat, %63k kalteak jasotzen dituelako.

Esandako guztiagatik ETBko emisio gunea Iurretatik Bilbora aldatzeko erabakia ez dugu onartzen, ez baitoa ETBren interesen alde, kontra baizik, langileon eguneroko jarduera zailtzen baitu.

ETBKO KALTETUEN PLATAFORMA
Iurretara

Telebista lokalen gainean

Euskal Herrian ari diren telebista lokalen kopurua asko ugartu da azken urteotan. Herri ekimenez sorturikoei, negozio bila (komertziala, politikoa edo bietara jokatzen dutenena; epe laburreko zein ertaineko etekinari begiak jarriak dauzkatena...) ari direnen presentzia gehitu behar zaizkio. Modu horretara ulertu daitezke Bilbo inguruan daudenak (Tele Bilbao, Tele 7, Canal Bizkaia eta Bilbovisión), Gasteizkoak (Tele Vitoria, Canal Gasteiz eta Correo taldeak aurki sortuko duena), Iruñekoak (Canal 4 eta Canal 6) eta Donostiakoak (Tele Donosti eta Localia Gipuz-

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



koa). Hiriburuetan, ingurune erdaldunduetan, interes enpresarialeaz jaiok eta lehiakorrek diren horietan ez da zerbitzu publiko asmorik ikusten, ezta ere jarrerara amateurrik eta helburu filantropikorik. Eta, lokalak izanik ere, telebistaren bitartez negozio egin nahi dutenen kopurua da gaur egun altuena Euskal Herrian.

Aldiz, aurrez aurre dituztenak herri ekimenez eraikiak, kopuruan gutxiago, kuantitatiboki txikiagoak, euskaraz edo ele bietara aritzen direnak eta ikuspegi parte hartzaile, sozialki mobilizatzaile eta programazio hurbila izan nahi dutenak dira. Gurea, GOITB, bospasei horietariko bat da. Txikitutasunean handi. Eredua askorentzat.

Telebistagintza lokalaren esangura estrategikoak konturatu dira asko. Ondoko hilabeteotan, gainera, gauzak aldatu egin daitezke, digitalizazioa, TB Lokalaren Legea, multimedia enpresen kontzentrazioarako mugimenduak eta publizitatearen merkatuaren mugak direla medio. Ibilbide horren nondik norakak zuk ere arretaz jarraituko dituzula badakit. Ondo segi eta eskerrik asko zutabearen esaten nituenak sakontzeko aukera eman didazulako.

EDORTA ARANA
Arrasate

Arrasatearrei gutun irekia

Guztiok genekien bezala Arrasateko gaztetxearen iraungipen data maiatzarako ezarria zegoen. Hala ere, Arrasateko Udalarekin eginiko hitzarmena dela-eta, data hau uztaile arte atzeratu da, eguna guztiz zehaztu barik dagoelarik.

Eskutitz honen bitartez, gure jarduerak sortu dituzten eta sor ditzaketen eragozpenak direla-eta, alde aurretik barkamena eskatu gura dizuegu, hau ez baita gure helburua. Gaztetxe honen helburua gazteon aisialdi alternatiba faltari aurre egitea da. Horretarako, beste askoren artean, hitzaldi, antzerki, bideo emanaldi eta kontzertuak antolatu ditugu. Azken hauek, zoritxarrez, auzokideekin daukagun konbibentzia kolokan jartzen dute, lehen esan dugun bezala gure helburua ez den arren. Hala ere, gaztetxeak egoera hobetzeko neurriak aztertu behar ditu eta epe motzean hauek martxan jarriko direla ziurtatu du.

Bukatzeo, lehen aipatutakoaz eta sor daitezkeen arazoez berba egiteko, egubakoitzero gaueko hamar eta erdietan egiten diren batzarretara etortzera animatzen zaituztegu, eta honetaz gain, Arrasateko gainontzeko gazteei bilera hauetara etortzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

ARRASATEKO GAZTE ALTERNATIBOEN
KOFRADIA ORGANIZATUA (AGAKO)
Arrasate

Ez gaituzte isilaraziko

Hilabeteak daramatzagu estatu espainiar eta frantziarrak Euskal Herriaren aurka daramaten estrategia ukatzaile eta errepresiboa areagotzera zihola esanaz. Eta, tamalez, hala gertatzen ari da. Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazka politikoa sorburua gure herriak libreki determinatzeko eskubideen urraketan datza. Lurraldetasuna eta autodeterminazio eskubideak indarrez eta biolentziatzat etengabe ukatu zaizkigu euskal herritarrei.

PPk, Estatu espainiarrean Gubernura iristearekin batera, herri honen nahia eta eskubideak betiko zapaltzeko estrategia bortitza jarri zuen martxan. Lehendabizi Ezker Abertzalearen aurka jo zuen, jakinda lehenengo lerroa jautzita gerora errazagoa suertatuko zitzaioela Euskal Herriarekin amaitzea. 18-98 sumarioarekin, Euskal Herriko erakunde, elkarte eta komunikabideei eraso egin die. Azken asteotan Batasunaren aurka antolatutako muntai politikojudizial-mediatikoa estrategia horren baitan kokatu behar dugu. Beraz, estatu espainiarrak Euskal Herriaren aurkako erasoak prestatu du. Horretarako erakundeak legez kanpo utzi eta beraien kideak espetxeratu ditu, nahiz eta jakin bide hori antzua dela, behin eta berriro frogatu denez. Behar izanez gero, herri honek erakunde berriak sortu ditu, tresna berriak martxan jarriko ditu, herri bat garelako eta herri honen eskubideak lortu arte ez dugulako etsiko.

Sortu den egoera honi frankismo garaian "estado de excepción" deitzen zitzaion eta ez besterik, frankista zaharren seme frankistek politika eta neurri berbera aplikatzen dihardute.

Berriz ere herri honen eskubideen defentsan aritzen direnak erasoak pairatu dituzte. Eskubideen aldekoak dira inolako eskubiderik gabe utzi nahi direnak. Non dira egunero giza eskubideez aritzen diren horiek? Non dira hitzeta-

tik ekintzetara pasatzeko garaia iritsi zela esaten zutenak? Non da Ibarretxe? Zertan dabilta PNV eta EA?

Erasoaldi berri honi emandako erantzuna paregabea izan da, herrietan, Bilboko kaleetan. Ez gaituzte geldituko, ez gaituzte isilaraziko, ez gaituzte mugatuko. Ezker Abertzaleak finkatuak ditu bere lan ildoak, finkatua du konponbidearen eta nazio eraikuntzaren aldeko konpromisoa eta hori egitera eta gartzera goaz, oztopo eta eraso guztien gainetik. Antolaketa, borroka eta eguneroko lana da erantzunik egokiena eta hori da egitera goazena.

Eta erantzuna osatzeko bi lehentasunezko neurri planteatzen ditugu: lehen, Faxistei aurre egiteko eustorma erraldoi bat eraikitzea; eta bigarrena, autodeterminazio eskubidearen inguruko adostasuna bilatzea, ezinbestekoa baita herri hau eszenatoki demokratiko batera eramanez ahal izateko.

Erasoa bortitza izaten ari da, basatia izango da, baina Euskal Herriak irabaziko du. Aurrera.

AITTOR ARANTZABAL (DEBAGOIENEN
BATASUNEN KOOORDINATZAILEA)
Debagoiena

Aretxabaletar guztioi gonbidapena

Badira bi urte "Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako Plataforma" sortu genuela. Orditik hona hainbat salaketa ekintza (manifestazio, bilkura, hitzaldi, enkartelada, etab...) egin ditugu. Dena den, plataforma honen sorreraren arrazoi izan ziren arazoak berean diraute: alde batetik, euskal preso politikoen egoerak berbera izaten jarraitzen du eta, bestetik, herri mailan gai honen inguruan sortu beharreko sentsibilizazio mailak nahiko motela izaten jarraitzen duela iruditzen zaigu.

Aretxabaletako plataformaren helburua, beraz, herritarren sentsibilizazioa eta atxikimendua lortzea da, presio soziala egiteko asmoz. Espainiako eta Frantziako presondegiatako legediak betetzea exijitu behar diegu bi estatu hauen instituzio politiko, juridiko eta espetxe instituzioei.

Guztiok ezagutzen dugu euskal presoaren egungo egoera eta berau salatu eta lehenbailehen aldatzearen alde lan egiteko helburua dugu. Helburu hauek lortu ahal izateko, beharrezkoa dugu zuen

laguntza eta konpromisoa. Beraz, plataformaren koordinazioa eramaten duen batzorde honek maiatzaren 21ean arratsaldeko zazpitan Udaletxe Zaharreko aretoan egingo den bilerara etortzea eskatzen eta eskertzen dizuegu.

Aretxabaletar guztion gain dago euskal presoak Euskal Herriratzearen alde lan egitea.

ARETXABALETAKO EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA PLATAFORMA
Aretxabaleta

Zure laguntza behar dugu

Bake Konferentzia azken txanpan sartzerako da. Ekainean prozesu honen balantzea aurkeztuko dugu. Bere emaitza positiboa izango den uste sendoa dugu eta itzaropentsu gaude. Baina ekaina baino lehen, eta hain zuzen ere, Bake Konferentziak bere helburuak lortzen laguntzeko, garrantzi handiko zenbait hitzordu ditugu.

Maiatzaren 18an, larunbata, manifestazio garrantzitsu bat egingo dugu Bilbon, La Casilla Plazatik abiatuta, 17:30ean. Jendetsua izatea espero dugun manifestazioaren leloa *Bakea-Elkarriketa-Berdintasuna*. Por un acuerdo plural al servicio de la paz izango da. Bere helburua Bake Konferentzia sozialki indartzea da bere fase erabakigarrian eta zailtasunak eta oztopoak geroz eta protagonismo gehiago hartzen ari direnean.

Bake Konferentzia prozesua urte luze batean salbuespen eraikitzailea izan da egoera blokeatu eta krispazioz bete batean. Korrontez kontrako errealitate hau herritarren parte-hartzeari esker izan da posible eta, jakina, zu bezalako milaka lagunek ekimen honi eskaini diozuen laguntzagatik. Orain, gure erronka ahalgin hau guztia helmuga onera eramatea da eta gauzak aldatzen laguntzea.

Honengatik, proiektuaren azken fase honetan zure laguntza eskatzen dizugu berriro ere. Manifestazio honetan parte hartzerako gonbidatu nahi zaitugu eta zure inguruan Bake Konferentziaren mezua zabaltu eta zure lagunak maiatzaren 18an La Casillara etortzera gonbidatzea ere bai. Mila esker. Jaso ezazu Elkarriko zure lagunak agurrik beroena.

ELKARRI
Donostia

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Konponketarik badauka aparkalekuen arazoak?

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzasu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Martin Garitano

'GARA' EGUNKARIKO ZUZENDARI-ALBOKOA

“Espainiako esparruaren alde dabilzanek egunero dihardute zeregin horretan, eta guk ere geure esparrua landu beharra daukagu, ezinbestez”

Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkarteak, hau da, *Gara* egunkariaren enpresa argitaratzaileak, Euskal Komunikazio Esparruaren I. Jardunaldiak egiten dihardu egunotan. Martin Garitano (Bergara, 1963) da jardunaldi horien koordinatzailea. *Gara* egunkariako zuzendari-albokoak da Martin gaur egun, eta *Egin*-eko erredaktoreburu eta *Euskadi Información*-eko zuzendari izandakoa da.

ENEKO AZKARATE

Euskal esparru komunikatiboaren gainean hausnarketa egiten diharduzue. Zein da helburua?

Euskal esparru komunikatiboa zer den, zelan osatzen den eta zer bitarteko edo tresna behar ditugun hori lantzeko eta zabaltzeko. Horiexek izango lirarteke jardunaldi horien helburu nagusiak.

Badago euskal esparru komunikatiborik?

Bai, guk uste dugu badagoela euskal esparru komunikatiboa, euskal esparru ekonomikoa edo politikoa dauden moduan. Hortaz, uste dugu hori landu behar dugula eta hori lantzeko ardura euskal komunikabideei dagokigula. Espainiako esparruaren alde dabilzanek egunero dihardute zeregin horretan, eta guk ere geure esparrua landu beharra daukagu, ezinbestez.

Eta zer da euskal esparru komunikatiboa?

Galdera horri erantzun nahi diogu jardunaldi horien bitartez. Baina gure hasierako planteamendua honako hau da: euskal esparru komunikatiboa da, euskaldunok geure eguneroko historia egiten dugun neurrian, historia hori geure erara kontatzeko eskubidea eta ahalmena izatea. Eta, horretarako, gure hedabide propioak behar ditugu, gure erreferentzia informatiboak Euskal Herrian egon daitezen. Esaterako, hiriburuan zerbait gertatu dela aipatzen dugunean, hiriburua Iruña edo Gasteiz izan dadin eta ez Madril edo Paris. Edo selekzioaz gabiltzanean, Euskadiko Selektzioa izan dadin eta ez Espainiako edo Frantziako selektzioa.

Hortaz, egon badago euskal esparru komunikatiboa...

Bai, zalantza barik badago, baina kontua da hori landu, zabaldu eta indartu egin behar dugula, eta, horretarako, beharrezko tresnak behar ditugu izan, benetako erreferentzia bihur dadin.

Euskal Herriko hedabideek aintzat hartzen dute euskal esparru komunikatiboa?

Gutxitan. Gainera, kontuan izan behar dugu gaur egun oso esparru ahula dela gurea. Zoritxarrez, gehienetan, euskal hedabideek Frantzia edo Espainia hartzen dituzte aintzat, albisteak ematerakoan. Hau da, Madrilen edo Bartzelonan gertatzen den beste zer edo zerk Baionan gertatzen den beste zer edo zerk baino oihartzun handiagoa dauka, jeneralean, hemengo hedabideetan.

Prensa idatziari begiraten badiogu, euskal esparru komunikatiboa lantzeko bokazioa izan dezaketenak dira gutxien saltzen dutenak. Hori errealtatea da, ezta?

Egia da gehiago saltzen dutela erreferentzia Espainia edo Frantzia dutenek, baina kontuan izan behar da Euskal Herrian, ia herri guztietan, badagoela aldizkari bat

Euskal Herria erreferentzia moduan hartzen duena, albisteak ematerakoan. Aldizkari horiek, gainera, oihartzun handia dute euren eremuetan. Bestalde, irratia eta telebista ere hor ditugu, eta, akaso, prentsa idatzian mantentzen ez den orekari eusten diote Euskal Herriko irratia eta telebistek. Euskal Herria erreferentzia duten egunkariak Franco hil ondoren sortutakoak dira. Besteek, berriz, Francorekin 40 urtez loditzen jardun zuten eta horrek tradizio bat eta herentzia bat ematen die, merkatuaren herentzia, hain justu ere. Telebistan eta irradian egoera bestelakoa dela uste dut.

Aipatu dituzun arrazoi horiez gain, beste batzuk ere egon daitezke Correo taldeko egunkariaren nagusitasuna ulertzeko. Ez duzu uste egunkari abertzaleek zer edo zertan ez dutela asmatu?

Zalantza barik, ez ditugu gauza guztiak ondo egin, baina ezta guztiak txarto ere. Gotzain ezagun batek behin esan zidan askoz ere errazagoa zela erlijioz aldatzea egunkariz aldatzea baino... Bai, euskal hedabide berriok ez dugu dena ondo egin eta, sarritan, politikak zerikusi handia izan du horretan. Besteek, aldiz, oreka bat lortu dute euren burua apolitiko bezala agertzeko. Baina, berriz diot, nik ez nituzke gure akatsak bakarrik aipatuko. Egia da, hala ere, gaitza dela ideologia ezberdineko familia baten egunkari abertzale bakarra erostea eta errazagoa dela, aldiz, familia abertzale baten Espainiako egunkari bakarra erostea, familiako kideak abertzaleak bai, baina ideologia ezberdinekoak izan arren.

Euskarazko hedabideen esparrua lantzea ez duzue pentsatu?

Euskarazko hedabideek leku berezia behar dute euskal esparru komunikatiboan. Euskaraz argitaratzen edo zabaltzen diren hedabideek geroago eta indar handiagoa behar dute izan euskal esparru komunikatiboan. Gure ustez, gainera, horrela gertatzen ari da.



EUSKAL ESPARRU KOMUNIKATIBOA

“Euskal esparru komunikatiboa da euskaldunok gure eguneroko historia egiten dugun neurrian, historia hori gure erara kontatzeko eskubidea eta ahalmena izatea”

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

“Euskarazko hedabideek leku berezia behar dute euskal esparru komunikatiboan. Horiek, gainera, geroago eta indar handiagoa behar dute izan euskal esparru komunikatiboan”

EUSKAL ALBISTEEN BERRI-AGENTZIA

“Beharrezkoa dugu euskal albisten berri-agentzia, edozer gauza kontatzeko. Euskaldunok geure historia egin nahi badugu, geure historia kontatu beharko dugu egunero”

TERTULIANOAK

“Hemen, Euskal Herrian egiten diren tertulietan, Espainian egiten direnetan baino seriotasun handiagoa erakusten dugu iritzi emailek”



ENEKO AZKARATE

Euskal albisteen berri-agentzia sortu beharra dagoela aipatu da jardunaldietan. Ados?

Herri guztiek dute euren albisteen berri-agentzia eta guk ere behar dugu. Gaur egun, Espainiako edo Frantziako agentzietatik datozkigu hainbat eta hainbat albiste eta horrek inertiak sortzen ditu. Adibide bat jartzearen: langabeziaren gaineko datuak Efe edo France Press agentzietatik jasotzen ditugu. Horiek Espainiako eta Frantziako datuak ematen dizkigute, baina guk Euskal Herriko herrialde guztietako datuak jaso beharko genituzke. Beharrezkoa dugu euskal albisteen berri-agentzia, edozer gauza kontatzeko. Euskaldunok geure historia egin nahi badugu, geure historia kontatu beharko dugu egunero-egunero.

Geroago eta gehiago eta geroago eta indartsuagoak dira tokiko euskal hedabideak. Garrantzitsuak dira euskal esparru komunikatiboa sortzeko?

Bai, bai, zalantza barik, oso garrantzitsuak dira; izan ere, nazio mailako hedabideez gain, jende asko dago norberaren herriko albistek herriko hedabideetatik jasotzen dituen. Albiste horiek, gainera, euskaraz jasotzen ditu. Sekulako proiektioa dute toki hedabideek.

Tokiko eta nazio mailako prentsa-aren arteko lankidetzak, baina, hutsaren hurrengoa da ia-ia. Lankidetzak hori bultzatu egin beharko litzateke?

Zalantza barik. Gure ustez, erru handia izan da tokiko aldizkarien eta prentsa komertziala dei dezakegunaren artean harreman estuagorik egon ez izana. Elkarren arteko harremanak oso aberatsak izan daitezke alde biendako. Hori horrela da. Euskaldunok oso indibidualistak izan gara beti eta lan egin izan dugu batek besteari bizkarra emanez. Hori akats handia da eta konpondu beharrezkoa. Norbaitek ilargitik ikusiko bagintu, euskaldunok ero samarrak garela pentsatuko luke. Horrenbeste energia sortzeko ahalmena izan arren,

gero ez dakigu energia hori behar den moduan aprobetxatzen.

Batez ere, egunkarian egin duzulan, baina irratian ere bazabiltza, iritzi emaile bezala. Zer moduz?

Ikasle denboran Loiola Irratian jardunuen eta oso erromantikoa izan zen, batez ere, gure etxean entzuten zen irratian lan egiten nuelako. Bestalde, zazpi urte dararatzat dagoeneko Radio Euskadin eta Euskadi Irratian kolaboratzen.

Eta zer iritzi daukazu irrati eta telebistetako tertulien gainean?

Hemen, Euskal Herrian egiten diren tertulietan, Espainian egiten direnetan baino seriotasun handiagoa erakusten dugu iritzi emaileek. Tertulianook ez gara orojakileak, baina uste dut hemengoetan jarrera zintzoagoa erakusten dugula. Espainiakoetan, Euskal Herriko gaiez dabilzanean, handiena botatzen duena txalotzen dute eta ez jarrera zintzoena erakusten duena. Hori lotsagarria dela uste dut.

Geroago eta indar handiagoa hartzen doaz egunkarietako bertsio digitalak. Paperari nagusituko zaie inoiz?

Batek daki. Baina ordenagailuak ezin daitezke edozein tokitaro eroan eta paperezko egunkariak, berriz, bai. Horixe da paperaren aldeko argumentu nagusia.

Paperezko egunkari eta aldizkariak desagertuko dira inoiz?

Garai baten, telebista asmatu zutenean, uste zuten irratia desagertu egingo zela. Beste neurri baten izan arren, etorkizunean ere, paperezko egunkarien irakurleak egongo direla uste dut. Seguruen, gaur egun baino gutxiago izango dira, belaunaldi berriak teknologia berrien zaleak direlako. Beharbada, paperezko prentsa minoritarioa izango da beste hedabideen aurrean, baina egon egongo dela uste dut.

Zer deritzezu Euskal Herrian argitaratzen diren egunkariei?

Oso iritzi ona. Prentsa asko irakurtzen dut egunero eta uste dut hemen egiten diren egunkariak oso kalitate onekoak direla.



ENEKO AZKARATE

“Ez egia ez eta objektibotasuna ere, ez dira existitzen”

Euskal Herrian hedabideetan lan egiteko askatasun ezaz kexu dira kazetari asko. Zer deritzozu horri?

Seguruen arrazoia izango dute. Normalizatu gabeko egoeran bizi gara eta hori arlo guztietan islatzen da, baita kazetarietan ere. Ulertzen dut batzuk ETaren beldur direla, beste batzuk Garzonen beldur... Berri txarra da kazetaria berri bihurtzea, eta horrelakoetan, are txarragoa.

Kazetariak egia modu objektiboan kontatu behar duela esan ohi da. Hala da?

Ez egia ez eta objektibotasuna ere, ez dira existitzen. Zer da egia? Bada, norberak ikusten duena. Eta norberak ikusten du, norberaren betaurrekoekin. Gezurrik ez kontatzeko asmoa izatea eta zintzotasunez jokatzeko izan behar da helburua.

Azkenaldiko joera da gutxi batzuen eskuetan batzea hedabideak. Orain dela gutxi Espainiako plataforma digitalekin gertatu dena da horren adibide garbia. Arriskutsua da hori?

Oso arriskutsua. Demokraziak baditu oinarri eta arau batzuk. Horietako bat hedabideen aniztasuna da. Horregatik, hedabideak gutxi batzuen eskuetan batzea askatasunaren aurka doala uste dut.

Podiuma

Imanol Etxeberria | RAYO VALLECANOKO ATEZAINA |

Bost urtez Athleticec ibili ondoren, Imanol Etxeberria atezain arrasatearra (29 urte) lehen denboraldia bete du Rayo Vallecano futbol taldean. Azkenean, pronostiko guztiak hautsiz, madrildarrek lehen mailari eutsi diote. Liga amaituta, etxera itzuli da Imanol.

Etxera etorri eta egin duzun lehen gauzetako bat Arantzazura joatea izan da.


Bai, nire buruari promesa bat eginda neukan. Denboraldia positiboa izan da eta, hori eskertzeko-edo, eguaztenean korrika joan nintzen Arantzazuraino, Azkoagaintik irtenda.

Liga erdialdean jende gutxi espero zuen Rayok lehen mailan jarraituko zuenik.

Liga hasiera oso txarra egin genuen eta bigarren itzulian hasieran salbazio postuetatik zortzi puntura geunden. Askorendako, mailaz jaisteko *kandidatu* nagusiak ginen. Zorionez, taldeak bere mailarik onena azaldu zuen bigarren itzulian eta zulotik irtetea lortu genuen. Besteak beste, Bartzelonari, Deportivori, Valentziari eta Alavesi irabazi genien etxean, eta horrek konfiantza eman zigun.

Zuk ere denboraldi ona egin duzu. Zer moduz Madrilen?

Hasieran kostatu egin zitzaidan Euskal Herriatik



XABI URZELAI

Imanol Etxeberria Rayoko jokalaririk onenetakoa izan da aurtan.

“Liga hasiera oso txarra egin genuen eta bigarren itzulian taldeak bere mailarik onena azaldu zuen”

“Oso gogorra da partiduak harmailetatik ikustea. Rayon berriro jokatzeko aukera izan dut eta pozik nago Madrilen”

irtetea, baina ondo moldatu naiz Madrigo bizi-modura. Eta bai, pozik nago egindako denboraldiarekin. Iaz, denboraldi osoa eman nuen jokatzeko Athleticec; oso gogorra

egiten da partiduak harmailetatik ikustea. Rayon jokatzeko aukera izan dut eta titular postua eskuratu dut. Beste bi urterako kontratua dut eta pozik nago.

Kanpotik ikusita, Rayo talde bere zia dela ematen du.

Bai, oso ezberdina da. Ruiz Mateos jabea izanik ezohiko talde bat da besteekin konparatuta. Esaterako, ez dauka entrenatzeko zelai propiorik eta astean hiruzpalau lekutan entrenatzen gara. Teresa Rivero? Oso jatorra da, jokalariondako ama moduko bat. Barre asko egiten dugu harekin.

Ilea tindatzea postura bategatik izan da?

Bai, Bilboko lagun batekin futbol postura bat egin nuen; ezin dizuet esan zein zen postura. Kontuak kontu, galdu egin nuen, Cañizares-en antzera ilea tindatzeko agindu zidan. Egia esan, ondo etorri zait, ile horiarekin jokatzeko bost partiduak irabazi egin ditugu-eta. Aitzakia moduan, Madrigo kazetariei esan nien aurrez permanentsia ospatzen ari nintzela.

Oporretarako, zein asmo?

Atsedean hartu gura dut, psikologikoki, batez ere, denboraldia gogorra izan delako. Aitaren anaia bat Mexikon bizi da eta hara joango gara. Gero, Bilbo aldean ibiliko naiz, gimnasio bat ireki genuen-eta. Ziurrenik, uztailaren erdialdean hasiko gara berriro entrenatzen. Dena dela, oraindik ez dakigu Gregorio Manzano entrenatzaileak gurekin jarraituko duen.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Agustin Iñarra
Pilotaria

Agustin Iñarra, 20 urte inguru zituenean.

Zortzi urtez ibili zen profesionaletan.

Gaztetan, Debarroko Txapelketa irabazi zuen.

31 urterekin erretiratu zen.

Zortzi urte eman zituen profesionaletan Agustin Iñarra, 1982tik 1990era, hain zuzen. Empresas Unidas-en eskutik egin zuen debuta Bergaran: Urrarekin bikotea osatuz, 22-7 nagusitu zitzairen Urkizari eta Leibarri. Aurretik, amateur mailan, hainbat txapelketa irabazi zuen. Jesus anaiarekin batera Debarroko Txapelketa irabazi zuen senior mailan eta 20 urterekin Gipuzkoako Banakako Txapelketa eskuratu zuen. Antiguon ere txapela jantzi zuen, Miguel Etxaniz lagun zuela. 1976an, Bergara, Herri Arteko Txapelketako finalera iritsi zen: “Hiru partiduak galdu genituen Azkoitiaren aurka, Andoainen. Miguelekin seniorren partidua jokatu nuen. Handik gutxira, errebantxan, 3-0 irabazi genien azkoitiarrei, Deban”. Bere burua definitzerakoan, zera diosku: “Aurrean jokatzeko nuen eta indarrezko pilotaria nintzen”. Profesionaletan bigarren mailan ibili nintzen. Banakako Txapelketan hiru urtez jardun zuen eta behin, final-laurdenetara iritsi zen. Gasteiz, Zarautz, Eibar, Zumaia edo Bergarako pilotalekuetan jokatu zuen, batik bat. Agustinen ustez, pilota asko aldatu da azken urteotan: “Material aldetik bote askoko pilotak erabiltzen dituzte gaur. Bestalde, lehen jende gehiago joaten zen frontoietara”. Gaurko pilotarien artean Mikel Goñi nabarmentzen du: “Asunto txarra dauka, baina pilotak Goñi bezalako pilotarien beharra dauka”. Pilota utzi zuenetik hona tabernari eta masaje-emaile lanetan ibili da Agustin, eta irailean, masaje etxe bat ireki zuen Bergaran. /E. M.

“Pilotak Goñi bezalako pilotarien beharra dauka”

Agustin Iñarra • Bergara • 1959



Oñatiko kadete nesken eskubaloitza taldea Murtzian

Aloña Mendiko kadete nesken eskubaloitza taldeak Espainiako Txapelketarako sailkatze fasean hartuko du parte aste bukaeran Totanan, Murtzian. Aloña Kanarietako, Ceutako eta Melillako ordezkarien aurka jokatu du. Ligaxkan lehen bien artean sailkatzekotan, ekainean Kanarietan jokatu den Espainiako Txapelketan izango dira oñatiarrak.

/ARGAZKIA: MARIAN

BABESLEA



VENTANAS
SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21

Arrasatetik Oñatira, korrika baten

Aitor Uribesalgok eta Iratxe Aranburuk irabazi zuten zapatuko lasterketa

Aitor Uribesalgo iurretarra eta Iratxe Aranburu zaraiztarra izan genituen zapatuan jokatu-tako Arrasate-Oñati Lasterketako irabazleak. Guztira, 165 lagun heldu ziren Oñatiko Foru plazako helmugara, ibilbideko 11,3 kilometroak bete ondoren.

Oñatiko Laixan euskara elkarteak antolatutako probak, ohi bezala, kirolari asko batu zituen. Aurtengoa Arrasate-Oñati Lasterketaren XX. ekitaldia genuen, eta, nahiz eta eguraldi kaskarra izan zapatuan, 165 lagun ailegatu ziren helmugara.

Esan bezala, Iurretako Aitor Uribesalgok irabazi zuen gizonen proba, 36 minutu eta 35 segundoko denborarekin. Iazko ekitaldian garaipena eskuratzeko izan zen Uribesalgo, eta aurtengo 31 segundoren alde ateratzen bigarren sailkatu zen Asier Urdanpilleta oñatiarrari. Hirugarren postua Xabier Iturralde azpeitiarrak eskuratu zuen, 37:46ko denborarekin.

Emakumezkoetan, Iratxe Aranburuk irabazi zuen (40:28), Raquel Llamas donostiarraren



JULEN IRIONDO

Partaidetza handia izan zen zapatuan Laixanek antolatutako Arrasate-Oñati Lasterketan.

(40:43) eta Marisol Ramon oñatiarraren (50:45) aurretik.

Debagoieneko partaidetzari dagokionez, Javier Mentxaka

arrasatearra zortzigarren heldu zen (38:26), Joxe Mendiola oñatiarra 14. izan zen (40:18) eta Jon Arantzabal bergararra, 16. (40:29).

Gazte onena Yerai Varela oñatiarra izan zen, 38. postuan (44:29).

EDU MENDIBIL

Kirolabur

PILOTA/ELGETA

Hogeita hiru urte azpikoen Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren barruan, ondoko partiduak jokatu dituzte gaur, egubakoitza, Elgetako pilotalekuan, 21:30etik aurrera: lehenbiziko partiduan Sorarrain eta Martin izango dira aurrez aurre; gero, Parrok eta Iriartek neurtuko dituzte indarrak; eta, azkenik, Mendiluze eta Aurtetxe elkarren aurka arituko dira.

KARATEA/ARRASATE

Uztailaren 20an eta 21ean, Europako Wushu-Kung Fu Txapelketa jokatu da Arrasateko Uarkapen. Hogeita hamar herrialdeko 300 borrokalari inguruk hartuko dute parte txapelketa horretan, tartean, Euskadiko selekziokoak.

PILOTA/BERGARA

Mendekoste Pilota Feria jokatu da Bergarako Udal Pilotalekuan zapatutik martitzenera bitartean. Lau egunean profesional mailako partiduak izango dira, 17:00etatik aurrera. Aitor Elkoro, Jose Mari Zezeaga, Jokin Etxaniz, Berraondo eta Murua-mendiaraz Debagoieneko pilotariekin batera, Errasti, Koka, Xala, Nagore, Titin III.a eta Olaizola II.a izango dira Bergaran.

Eskaintza

→ 3x2

(PREZIOA, PRODUKTU BAKOITZEKO)



VERNEL
leungarria.
1,11 €
185 pta.



ULTRASUAVE
xanpua.
2,94 €
489 pta.



NATURAL HONEY
bainurako gela.
2,65 €
440 pta.



COLHOGAR
ezpain-zapiak.
0,60 €
100 pta.

3x2



LA TOJA
aparra.
2,65 €
441 pta.



DODOT MIMO
haur-oihalak.
3,55 €
590 pta.

DENOK
PERFUMERIAS
www.DENOK.COM



**Oñatiko Alde Zaharrea
OSTATU BERRIA**

18 logela
denak
bainua, telebista eta
aire egokituarekin

Elbarrituendako prestatua

Egongela eta gosariak
hartzeko txokoa

Informazioa eta erreserbak:
Kale Zaharra, 19
Tel.: 943 71 82 85
Faxa: 943 71 82 84
administracion@ongi.e.telefonica.net



Eta orain...
ONGI TABERNA
berriz ere zuen artean



o s t a t u a

OÑATIN BERTAN,
BERRIZTUTAKO ERAIKINA
EROSOTASUN GUZTIEKIN



Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 17a

Kultura
eta
aisialdia



Maiatzaren
17tik 24ra



Bidean ibiltzeko jaioak

Klasiko bihurtu da Arrasateko Motozaleen Elkarateak urtero Musakolako jaietan antolatzen duen kontzentrazioa, eta aurten, hamahirugarren aldia izan dute. Eguraldiak aurtengoa hondatuko zuela zirudien, baina azkenean, alde guztietatik etorritako motozaleek bat egin zuten jaiarekin. /LEIRE KORTABARRIA

JAIALDIK/MOTZALEEN KONTZENTRAZIOA IZAN ZEN JOAN DEN ASTEBURUAN ARRASATEN

Debagoiena, motoen erresuma

BERREHUN LAGUNEK PARTE HARTU ZUTEN ARRASATEKO MOTZALEEK ANTOLATUTAKO XIII. KONTZENTRAZIOAN

Nahiz eta antolatzaileek, Arrasateko Motozale Elkartek, euren ilusio guztia ipini, batzuetan beste baldintza batzuek eragina izaten dute Arrasateko urteroko motozaleen kontzentrazioan; horrela izan da aurten. Hala ere, berrehun bat motozale elkartu dira aurten.

Arrasateko Motozale Elkartek urtero antolatzen duen kontzentrazioa klasiko bihurtu da. Zigorrola auzoko jaiekin batera antolatu izan dute urtero-urtero; aurten, hamahirugarren aldian izan du. Txosnetan trago bat hartzeko,

asteburuan kanpaldia egiteko, antzinako motoak miresteko... eta, jakina, bazter guztietako motozaleek elkar ikusteko —edo berri-kusteko— gune bihurtzen da asteburu batez Eroski ondoko zelaia.

ATSEGINENA, LAGUNAK IKUSTEA

Arrasateko eta Debagoien osoko motozaleez gainera, Espainiako eta askoz urrutiagoko —New York-eko bisitari bat izan zen han, besteak beste— zaleak etorri dira aurtengoan. Zapatuan, antolatzaileak pixka bat kopetilun zebiltzan, eguraldiarengatik eta beste kontzentrazio edo moto txapel-

ketengatik, hainbeste jende etorri ez zelako: “Urte baten, hirurehun bat lagun elkartu ginen”, gogoratzen zuten. Hala ere, gauzak hobera joan ziren, eta domekan, talde polita elkartu zen Arrasate inguruan.

Euskal Herriko, Galiziako, Gaztelako, Valentziako... matrikuladun motoen artean, batzuek motorista jantzia soinean zutela, beste batzuk jaka beltzarekin... Han zebiltzan guztiek gauza berbera esan ziguten: “Gehien gustatzen zaiguna? Giro jatorra, beste kontzentrazio batzuetan eza-gutu ditugun lagunak ikustea...”.

KANPALDIA ETA BISITA TURISTIKOA

Motozale batzuek bisitatzea egin eta joan egiten dira. Burgostik etorri zen Jose Antonio, bi ordutan 140 kilometro egin ondoren. Lehenengo aldiz zegoen Arrasaten, baina aspalditik zebilen etortzeko gogoarekin: “Orain dela lauzpabost urte entzun nuen hemen kontzentrazio bat egiten zela. Hamabi urte daramatzat era honetako ekintzetan, eta hona ere etortzea erabaki dut, arratsalde pasa egitera”, esan zigun.

Beste batzuek, ordea, Arrasaten kanpatzen dute. Izan ere, antolatzaileek bestelako ekintzak ere

prestatzen dituzte: “Urtero, irteera bat antolatzen dugu; aurten, Gatzagara. Hona etortzen diren ingurunea erakutsi gura izaten diegu”, zioskun antolatzaile-atariko batek.

Motozaleendako euren dako ez ezik, Zigorrolako jaietan dabilen gozamerako ere izaten da urteroko jai hori. Parte hartzaileak bezainbat ikusle erakarriz zituen kontzentrazioak. Moto erakusketari begira asko zeuden; motozaleei begira, gehiago.

LEIRE KORTABARRIA
ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA

FERNANDO SANCHEZ / ANTOLATZAILEETARIKO BAT

“Ea gazteek antolatzaileoi lekukoa hartzen diguten”

Fernando Sanchez Arrasateko Motozale Elkarteko presidentea da. Orain dela urte batzuetatik, kontzentrazioko antolatzaile taldean parte hartzen du.



Hainbat gauza aurka izan dituzue aurten...

Bai, hala da. Hainbat motokros proba jokatzeko ziren; eguraldiak ere kale egin zigun... Hala ere, jendeak ondo erantzun zuen eta, batez ere, domekan, jai giro polita izan genuen.

Zenbat jende eta nongoak elkartu zarete?

Berrehun bat, bazter guztietatik etorritakoak. Urrutikoa Sevillako bat izan da.

Lan handia eskatzen du urtero kontzentrazioa antolatzeak?

Orain ez hainbeste, harreman guztiak eginda daudelako. Orain dugun arazoa, ordea, lekukoa hartuko duen jende falta da. Ea gazteagoak animatzen diren!

Zer da kontzentraziotik gehien gustatzen zaiguna?

Giroa, lagunak elkartzea... baina, batez ere, Zigorrolako jaiekin batera egiten denez, gauez Argizko Bidea egiten dugu: motozaleok koloretako argiekin pasatzen gara, eta jaietan dabilen jendea errepidera hurreratzen da gu pasatzen ikusteko. Oso-osoa polita izaten da.



Oskar, Idoia, Enrique eta Juanjo bilbotarrak lehenengo aldiz egon ziren Zigorrolako kontzentrazioan.

Gazte bat, zaurituta

Motoez berba egiten dugunean, sarritan segurtasunaren kontua ere burura etortzen zaigu. Aurtengo motozaleen kontzentrazioak giro alai eta kontu pozgarriak eta kuriosoak utzi dizkigu, baina baita berri tamalgarri bat ere. Domekan gertatu zen ezbeharrak. Ertzain-

tzak aditzera eman duenez, M.J.L. 34 urteko gazte zarautzarrak zauritu egin zen bere Suzuki 71/2 mototik erortzerakoan, GI-627 errepidean, Bergararik pasatzen den ibilbide zatian, hain zuzen ere. Istripua eguerdi inguruan gertatu zen, 13:00ak aldera. Gurutze Gorriko ambulanzia

bat berehala iritsi zen lekura, eta Eskualdeko Ospitalera, Arrasatera, eraman zuen zauritutako gaztea. Ez dugu jakiterik izan ezbeharrak zelan edo zergatik gertatu zen. Eskualdeko Ospitaletik Gasteizko Txagorritxu ospitalera eraman zuten geroago zauritutako motozalea.



ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errabala 8. Tel.: 943 77 20 78
Astelehenerdik egubakoitzera:
10:00-13:00 eta 16:30-20:00

Osakidetzarekin eta
Lagun Aroekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez

Oinaren azterketak: tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
Umeak: hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.

Materia bigunen erabilera: oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
CAD/CAM sistema: Plantillen fabrikazioa (berehala ematen dira).
Neurrira eginiko oinetakoak.
AEBetatik inportatua.

Bizi kalitate hobea • Guztiak ordenagailuz kontrolatua

Tony Ci

Mikele

Moto za


KRONIKA/ BERRI TXARRAK TALDEA ARRASATEN



...be Ameriketako Estatu Batuetatik etorri zen, New York-etik, hain zuzen ere.



...eta Davidek esan ziguten beste motozale batzuekin topo egitea dutela gustukoan.



...harren erakusketak herritar asko erakarri zituen.

Gazteendako metala

BERRI TXARRAK TALDEAK KONTZERTU ARRAKASTATSUA EMAN ZUEN

Taldea: Berri Txarrak. **Noiz:** Maiatzaren 11n. **Non:** Arrasateko gaztetxean. **Batutakoak:** 300 bat lagun.

Lekunberriko Berri Txarrak taldeak *Eskuak/Ukabilak* izeneko diskoa aurkeztu zuen joan den egubakoitzean Arrasaten. Jende dezente gerturatu zen kontzertura, eta bigarren eta hirugarren disko kantua jo zituzten ordu eta erdiko emanaldian.

Gaueko hamaikak pasatxo hasi zen Nafarroako Berri Txarrak taldearen kontzertua. Eta ordu-rako, jende mordoxka zegoen gaz-

tetxearen barruan, horien artean, neskabila askotxo.

DOINU ITSASKORRAK DITUEN METALA

Lekunberriko laukoteak berehala lortu zuen ikus-entzuleekin komunikazioa. Taldekoek zuzenekoak egiten eskarmentu handia dutela erakutsi zuten, eta partaide guztiak fin ibili ziren arren, bateriaren lana nabarmendu beharko litzateke. Are gehiago, bateriak emanaldian hainbat makila apurtu zituen.

Berri Txarrak taldeak metal estiloa jorratzen du, baina kantatzeko moduarengatik, batez ere, oso doinu itsaskorrek ditu.

Eskuak/Ukabilak izeneko azkeneko diskoa aurkeztera etorri ziren, eta lan horretan oinarritu zuten emanaldi gehiena. Hala ere, *Ikasten* izeneko aurreko diskotik ere zenbait kantu jo zituzten. Baita ere, jakina, Aste Santuko Topagunerako prestatu eta ezagun bilakatu den *Bizai berriak* kantua (*Elorrixon zu ta ni... delakoa*).

Mundua begiratzeko leihoak kantuan ikusle baten laguntza izan zuten, eta ohiko bi bertsoiak ere jo zituzten: System Of A Down taldearen *Spiders* eta Judas Priest-en *Breaking the law*, hain zuzen.

ARKAITZ BIAIN



Bertan egotea bezala!

Pazkuetako saio bereziak GOITBn

XELEBERRI

▪ Asteartea, maiatzak 21, 20:45ean

DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA

▪ Asteazkena, maiatzak 22, 20:30ean

INFORMATIBOA BERGARATIK

▪ Martitzena, maiatzak 21, 14:00etan

Goitb
Goiena Telebista

Maiatzak 17-24

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Irak, la mirada de los inocentes** delako hitzaldia antolatu du Anelkarrek egunerako, maiatzaren 23rako. Olanen etxean izango da, 19:00etan.

ARRASATE

► **Udaberri-udako moda desfilea** antolatu dute Arizmendi ikastolako 1. Batxilergoko ikasleek. Maiatzaren 17an izango da, Amaia antzokian, 18:00etan.
► **Udako udaleku programa abian jarri du Txatxilipurdik.** Leku mugatuak egongo dira, eta izena emateko azken eguna: ekainaren 18a. Horretarako, jo Pablo Uranga kaleko 6. zenbakira, honako orduetan: 10:00-13:00 eta 16:30-19:30.

BERGARA

► **Puerto Azpiroz - Puerto Lizarrusti ibilbidea duen mendi martxa** antolatu dute Pol-Pol mendizale taldeak eta Gorla Alpino taldeak maiatzaren 26rako. Egun osoko irteera izango da. Frontoian elkartuko dira, 08:00etan. Bergarako mendizale guztiak daude parte hartzera gonbidatuta.
► **Jolasleku Ibiltaria 2002 programa** martxan jarri du Jardun elkarteak. 6-12 urteko umeendako. Maiatzaren 24an, Boluko plazan izango dira.
► **Herri bazkaria antolatu dute** Etxerat!, Xamatx eta Jardun taldeek eta herriko koadrilek maiatzaren 21erako.

Txartelak salgai daude Ariznoan, Jardunen, Kortazarren eta Pol-Polen, maiatzaren 19ra arte. 13:00etan, Pol-Pol tabernan elkartuko dira; 14:30ean, bazkaldu egingo dute, plazan; euria izanez gero, seminarioan. Bazkalostean, jokoak eta poteoa izango dira.

DEBAGOIENA

► **Debagoieneko Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegoak merkatarientzako hitzaldi bat** antolatu du hilaren 20rako, Nafarroa Etorbideko 21. zenbakiko egoitzan, 14:30ean. Eusko Jaurlaritzak emango dituen dirulaguntzak aurkeztuko dira ekitaldi horretan. Bestalde, Bulegoko arduradun berria Jorge Blázquez izango da aurrerantzean. Honako orduetarian atendituko zaituzte: 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara.
► **Bakea-Elkarrizketa-Berdintasuna leloarekin, manifestazioa** deitu du Elkarrri taldeak maiatzaren 18rako, Bilbon. La Casillatik irtengo da, 17:30ean, eta autobusak antolatu dituzte Arrasatetik, Aretxabaletatik, Bergararik eta Oñatitik joateko, 16:00etan. Autobusez joan gura duenak 902 42 10 10 telefonora deitu beharko du, lehen bailehen.

ELGETA

► **Burgosera egun osoko irteera** antolatu du erretiratuen elkarteak maiatzaren 24rako. Hiriburua eta hiru herri bisitatuko dituzte. Joan nahi duenak lehen bailehen egin beharko du izenematea.

OÑATI

► **Zabalik dago uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko** matrikulazio epea. Interesa dutenek etxera bidalitako orria bete beharko dute, eta Euskadiko Kutxan ordainketa egin.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Irak-en gaineko erakusketa** zabalduko du Anelkarrek datorren egubakoitzean, hilaren 24an, Olanen etxean. Maiatzaren 26ra arte izango da zabalik, hau da, datorren domekara arte.

ARETXABALETA

► **Kepa Akixo eskultorearen** egurrezko irudien erakusketa izango da ikusgai ekainaren 30era arte. Udaletxeko ganbaran izango da.

ARRASATE

► **Arrasateko Gaztetxeko kontzertuen historia karteletan: 1991tik gaur eguneraino** izeneko erakusketa

dago zabalik gaztetxean. 170 kartel inguru eta kontzertuetarako hainbat sarrera daude erakusgai.

BERGARA

► **Euskal jantzien gaineko erakusketa** izango da udaletxean, maiatzaren 21era arte. Maiatzaren 10ean, egubakoitzean, zabalduko dute, 18:30ean.

OÑATI

► **Rocka eta euskal rock radikalaren mugimenduaren** gaineko erakusketa dago ikusgai Elkar-Hezi ikastetxean, Santa Marina plazan.

LEHIAKETAK

ESKORIATZA

► **San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa** deitu du udalak. Hirutik bost lagunera bitarteko taldeetan parte hartu ahal izango dute 13 urtetik gorako eskoriatzarrek. Talde bakoitzak gura beste esaldi aurkeztu ditzake. Udaletxeko eta kultura etxeko

eskapeetan ipiniko dituzten buzoietan sartu beharko dituzte esaldiok, maiatzaren 25etik ekainaren 2ra bitartean, lema edo ezizen bidez. Irabazleak 40 euro eskuratuko ditu.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Balio pertsonalen lantegia** antolatu du Sadhana zentroak. Argibideak: 616 96 57 95.
► **Txalaparta ikastaroa** izango da maiatz osoan barrena. Argibideetarako, jo Loramendi euskara elkartera.

ARRASATE

► **Perkusiozko arabiar erritmoen hastapen tailerra** antolatu du Iñaki Bruñak. Gazteluondoko aretoan izango da, maiatzaren 20an eta 27an eta ekainaren 3an, 10ean eta 17an, 18:00etatik 20:30era. Izena emateko, deitu 943 79 80 25 (Iñaki).
► **Bioenergetika ikastaroa** antolatu du Arrasate yoga elkarteak. Deitu 616 96 57 95 telefonora.



**ARRIETA &
SAN MIGUEL**

INMOBILIARIA - AGENTZIA



ARETXABALETA

- Bedarretako San Miguel-en 50 m². Guztiz berritako. Prezio interesgarria.
- Zaraia kalean 77 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Argitsuak.

ARRASATE

- Erdialdean, 112 m². Lau logela, komun bi, trastelekua, terraza bi. Kokapen ezin hobea
- Erdialdean, 135 m². Lau logela, komun bi, trastelekua, garajea.

Tel : 943 71 17 81 • Fax: 943 79 20 54
Iturriotz kalea 23 • ARRASATE
e-mail: inmo@arrietasanmiguel.com • www.arrietasanmiguel.com



► JAIK

OTALA ZELAI ERROMERIA IZANGO DA ARETXABALETAN

Otala Zelai eguna ospatuko dituzte aretxabaletarrek maiatzaren 19an. Goizeko 10:00etan, txistulariek diana joko dute; ondoren, umeendako puzgarriak eta jolasak izango dira. Eguerdiko partean, entsalada txapelketa jokatu dute, eta epai-mahaia aukeratu dute entsalada 14:00etako herri bazkarian zerbitzatu dute, lehen plater bezala. Herri kirol eta jolasak izango dira bazkalostean, nagiak astintzeko; 16:00etan, Pedro Goenetxea txirindularitza memoriala hasiko da. 18:00etan, Loramendirenkin dantza saioa izango da, 20:00ak arte. Eguraldi txarra izanez gero, jaia Iturrigorri frontoian izango da.

Non: Aretxabaletako Otala zelain edo Iturrigorri frontoian. **Noiz:** Maiatzaren 19an, domekan. **Ordua:** Egun osoan zehar.



MEMESA SL

Industri hornidurak


943 71 24 25

AIPAGARRI

Jesus Mari Lazkano

BERGARA


Madrilgo Antonio Machón galerian "El espejo transparente" erakusketa dauka Jesus Mari Lazkano bergararrak. Duela hilabete eta erditik dago ikusgai erakusketa hori, bihar arte, zapatura arte. Duela hamar bat urtetik, askotan jarri ditu Lazkanok bere lanak Antonio Machonen galerian.



Oscar Mateo

ARETXABALETA

Sevillako Jamais argitaletxeak *Cuentos selectos IV* liburua argitaratu berri du. Berrogei idazleren lanak jaso dituzte hantxe, Oscarren lau ipuin tartean. Jamais-ek antolatutako lehiaketa baten parte hartu zuen Oscarrek; saririk jaso ez zuen arren, bere ipuinak gustatu eta argitaratu dituzte argitaletxeok.



Alberto Iñurrategi

ARETXABALETA

Eguenean, goizeko seiretan, iritsi zen Alberto Iñurrategi Annapurnako gailurrera (8.019 metro), bere hamalagarren zortzimilakora, Jean Lafaille mendizale famatuarekin batera. Marka hori lortzen duen hamargarren mendizalea da, denetan gazteena, eta bigarren euskalduna.



JAIOTAKOAK

- Irene Cuesta Gómez.** Arrasaten, maiatzaren 6an.
- Jokin Zeziaga Delgado.** Arrasaten, maiatzaren 7an.
- Eneko Parra Matilla.** Arrasaten, maiatzaren 8an.
- Oier Zuriarrain Pérez.** Arrasaten, maiatzaren 9an.
- Julen Prieto Loidi.** Bergaran, maiatzaren 10ean.
- Jon Armendia Cerval.** Arrasaten, maiatzaren 13an.
- Maria Sajeras Cuesta.** Arrasaten, maiatzaren 13an.

HILDAKOAK


- Arrate Elkoro Telleria.** Elgetan, maiatzaren 9an. 60 urte.
- Jose Gorrotxategi Lizarralde.** Bergaran, maiatzaren 9an. 74 urte.
- Maria Josefa Ganuza Lardizabal.** Bergaran, 10ean. 89 urte.
- Pablo Alzelai Guridi.** Arrasaten, maiatzaren 10ean. 81 urte.
- Luis Belategi Bengoa.** Arrasaten, maiatzaren 10ean. 88 urte.
- Mari Carmen Orbegozo Ilundain.** Arrasaten. 40 urte.
- Jose Bellido Cacho.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 71 urte.
- Felix Igartua Orbea.** Bergaran, maiatzaren 12an. 71 urte.
- Jesusa Villa Zarandona.** Arrasaten, maiatzaren 13an. 82 urte.
- Jeronima Agirrezabal Zangitu.** Bergaran, 14an. 79 urte.
- Elisa Mondragon Sologaitoa.** Arrasaten, 15ean. 96 urte.




Mikel Parra Navarro eta **Miren** ama, eskoriatarrak biak. Mikel maiatzaren 6an jaio zen, eta 3,990 kilo pisatu zuen. **Oskar** da aita, mondragoetarra.



Irene Cuesta Gómez eta **Cristina** ama, mondragoetarrak. Maiatzaren 6an jaio zen Irene, eta 2,590 kilo pisatu zuen. **Josean** da aita, mondragoetarra.



Olatz Zuazubiskar Iñarra eta **Mercedes** ama, mondragoetarrak. Olatz maiatzaren 6an jaio zen, eta 3,550 kilo pisatu zuen. **Jesus** da aita, mondragoetarra hura ere.



Eneko Parra Matilla, Yolanda eta **Abel** gurasoekin, mondragoetarrak hirurak. Maiatzaren 8an jaio zen Eneko, eta 3,5 kilo pisatu zuen.



Laura Hernándezek maiatzaren 12an egin zuen jaunartzea Musakolako Santa Teresa elizan.



Irti Herrastik joan zen domekan egin zuen lehen jaunartzea Arrasateko San Andres elizan.



Itziar Oiartzabalek Eskoriatzako San Pedro elizan egin zuen lehen jaunartzea joan zen domekan.



Nagore Belokik joan zen domekan egin zuen lehen jaunartzea Eskoriatzako San Pedro elizan.

URTEURRENA

Juana Berraondo Larrea

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 19an, 12:30ean, **Bergarako San Pedro** parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Konrado Inza Askasibar

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 19an, 12:30ean, **Bergarako San Pedro** parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.




Antonio Iturbe eta **Justina Lezeta** antzuloarrek **50 urte** bete dituzte ezkontuta gaur, egubakoitza. Zorionak familiaren partez!

URTEURRENA

Cipri Muruamendiaraz Txintxurreta

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 19an, 12:30ean, **Bergarako San Pedro** parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Guillermo Llano Etxegibel

Aretxabaletan hil zen 2001eko maiatzaren 18an.



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 19, 12:00etan, **Aretxabaletako Parrokian.**



Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

URTEURRENA

Gregoria Guridi Idigoras

Hirugarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 19an, 12:30ean, **Arrasateko San Juan Bataiatzailearen** parrokian



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

**NISSAN PRIMERA BERRIA.
ADIMENAK ADIMENA ERAKARTZEN DU.**



NISSAN PRIMERA berriaren eta orain arte zeuden autoen arteko edozein antzekotasun kointzidentzia hutsa besterik ez da. Diseinu sendoko autoa. Kontrol-panelak erdian. Autoen arteko distantzia neurtzeko kontrol inteligentea. Nabigatzeko DVD sistema. Atzeko ikuspegiko kamera. Auto berria baino gehiago da, autoa ulertzeko beste era bat. Inteligentzia era berria.

aurreikuspenak_GAINDITZEN


PRIMERA BERRIA



SHIFT_expectations



**ALDIBI AUTOAK, S.A.
ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02
20500 ARRASATE**

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Kaioa	▼	Arte	▼	Bokala
	Norabait		Inbutua		
	Leherkari ezaguna	►			Iodoa
	1150				
Oinarritzat 10 duena	1013	►			Oldarra
Deitura	Egon nadin				
Infusio mota					Bokala
Umorezko kolpe					Putzua
			Bokala	►	Iridioa
			Izadia		
Edari al-koholdun		▼	Nafarroako urtegia	▼	
Sarrerak, atariak			Leizeak		
				►	Euskal fonema
					Infin., nekatu
Izena				▼	
Erbioa					
			Kolore mota	►	
			Kriptona		
Musika tresna	Zikinkeria	►			10
	Bokala				
					Kontso-nantea

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ Juan Martin Elexpuruk jasoak

Hautetako asko Juan San Martinen *Zirikadak* eta *Eztenkadak* liburuetatik jasoak dira.

PARRANDA ZALIA

Bi lagun:
- Hi be solamentian makiña bat parranda einddaku haiz heure denporan!
- Jesus, Jesus, zenbat gripe pasau ete juau zutik ajia zalakuan.

MEDIKUAK KULPIA

Mediku plazentziar harek esan ebana:
"Medikuena dok ona, medikuena: gaixua hiltzen dala eta medikuak kulpia, osatzen dala eta San Antoniok".

MOKUAK DARIXOLA

Badoiaz trenian errespetu handiko gizon bat eta mutiko bat, hau mokuak darixola. Gizonak hau ezin

ikusitta, esaten dotsa haserre antzian:
- Hi, mutikua, ez daukai paiñolorik ala?
- Bai, baiña ez datsat iñori lagatzen.

SANSON BAIÑO INDARTSUAGUA

Juntau die aspaldiko bi lagun:
- Gure mutikua Sanson baiño indartsuagua datorrela esango neukek. Bost urte besterik etxaukak eta hamabost kilo erreztatzen jittuk.
- Ba ez pentsau guria be makala datorrenik. Hiru hillebete besterik etxaukak eta gabian, nahi daben bakoitzian, etxeko danok aldatzen gaittuk, eta batzuetan auzokuak be bai.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zenbat bizilagun dauzka Bergarak?

G arai batean Bergara izan zen bailarako herririk jendetsuena, baina joan zen mendean, 1950-60ko hamarkadako etorkinen uholdearekin, Arrasatek hartu zion aurrea. Baina, gaur eguneko egoerara bueltatuta, asmatuko zenuke zuk, 2001eko urte bukaeran, zenbat bizilagun zituen Bergarak?

- 17.049
- 15.718
- 15.074

Erantzun zuzena: 15.074. Gehien izan zuen garaian, 16.000 pasatxo izan zituen (1981eko erroldan, 16.049).

SOLUZIOAK



	●	A	●	A	●			
		I	N	O	R	A		
		●	T	N	T	●		
	●	H	●	M	X	I	I	I
	C	A	N	C	E	L	O	●
	●	M	A	L	T	A	●	E
	G	A	G	●	A	●	I	R
	●	R	O	N	●	E	S	A
	A	T	E	A	K	●	T	S
	●	A	N	T	O	N	I	O
	E	R	●	U	B	E	L	A
	●	●	K	R	A	K	A	●
	M	A	R	A	K	A	●	X

DENBORA-PASA /21

ASTEKHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21
Lanean hainbat aldaketa gertatuko dira; hori dela eta, aurrerantzean ardura gehiago izango dituzu eta, era berean, aisialdirako denbora laburragoa izango duzu. Ondorioz, ohikoa baino haserrekorrago egongo zara.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21
Atzerriko inbertsioak, negozioak edo ikasketak ez dira irteneko zuk gura zenuen moduan eta arazoak izango dituzu; arazok konpontzeko, bidairean bat egin beharko duzu atzerria. Bestalde, zure jarrera triste, depresibo eta negatiboak eragingo du bakarrik egon gurako duzula; ez duzu gurako inorekin egon.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21
Zure buru-argitasunak eta sen onak lagun-eragingo dizute erabaki onenak hartzeko orduan, biziak alderti guztietan hobetzeko. Bestalde, familiarteko kideren batek arazoak izango ditu, eta zure laguntza beharko du.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22
Araozak izango dituzu lagun batekin; izan ere, lagun horren neska/mutil-lagunak esango dizue sexu-harremanak izan gura dituela zurekin. Bestalde, lanean ezusteko bat izango duzu, eta, ondorioz, abokatu batengana jo beharko duzu. Eta azkenik, aldaketa ugari egingo duzu etxeko apaintzetan.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22
Ohikoa baino denbora luzeagoa izango duzu aisialdirako, eta denbora hori aprobetxatuko duzu zu pertsona moduan gartzeko jarduerak egiteko. Bestalde, familiari behar duen arreta eskaini beharko diozu, bereziki, zure semeren/alabaren bati..

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22
Energia soberan duzu, bai eta erabakiak hartzeko gaitasun handia ere; edozelan ere, energia hori ez duzu ondo bideratzen, horregatik ez zaizkizu gauzak ondo iritertzen. Bestalde, ez zaitez haroputza izan eta eska ezazu aholkua. Eta azkenik, autoaren olioarekin edo urarekin arazoak izango dituzu, eta, ondorioz, errebisioa egitera eraman beharko duzu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22
Nahiko pozik ibiliko zara; izan ere, diru sarrera handiagoa izango duzu, ezustean. Horrez gain, lanean kontuan hartuko dituzte zure ideiak, eta, ondorioz, oso pozik sentituko zara zure burua-rekin.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22
Anaiak arazo iturri izango dira; izan ere, zure kontuetan sartzen ahaleginduko dira. Bestalde, irteerak egin beharko dituzu lan kontuetan, baina ez dira onuragarriak izango. Eta azkenik, sorbaldetan edo besoetan arazoak izango dituzu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21
Arazo familiarak, komunikazio falta dela eta; arazo horiek areagotu egin daitezke ez baduzu berehala zerbait egiten. Bestalde, jendeak zu lantzea eta maitatzea gura izango duzu, eta horregatik, baliteke sexu-harremanak ere edukitzea, baina epe luze arazoak emango dizkizute harreman horiek..

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20
Egunerokotasunetik irteteko gogoia izango duzu, bai eta beste esperientzia batzuk bizi izateko ere; hori lortzeko, hainbat jardura aurrera eramango dituzu, epe luze arazoak izango diren ekintzak. Bestalde, dentistarengana joko duzu, haginmetako mina osatzeko..

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20
Oso pozik eta zorionsu egongo zara, dena oso ondo irteneko zaizu eta. Gainera, barne postazuna izango duzu eta ase sentituko zara; horrekin guztiarekin, gaitasuna izango duzu zuregan joango zaizun jendeari aholkua emateko eta laguntzeko.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20
Maitasun kontuetan zalantzak izango dituzu eta bikote-kidearengandik urrunduko gingo zara. Bestalde, lanean hutssegiteren bat egingo duzu, eta, ondorioz, arazoak izango dituzu nagusieren batekin. Eta azkenik, argi ibili zer sinatzen duzun, iruzur egin diezazukete eta.



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com



**NAIARA URIARTE/
XELEBERRI**

“Nagusien erantzunak izan ohi dira xelebreenak”

Xeleberrri saioko langile gazteena da Naiara Uriarte. Oraindik eskolan ikasten dabil, baina etorkizuna argi dauka: kazetari izan gura du Naiarak.

Nolatan hasi zinen Xeleberrri-n?

Nik nolabaiteko praktikak egin gura nituen komunikabideren baten. Hasiera baten, Arrasate Irratian galdetu nuen ea niretako lekuri bazegoen. Han ezezkoa eman zidaten, baina telebistarako, *Xeleberrri*-rako, jendea behar zutela enteratu nintzen eta ez nuen bi aldiz pentsatu.

Eta zelan ikusten duzu zure burua telebistan?

Egia esan, lotsa apur bat ematen dit. Bestalde, ni neu naiz nire buruaren kritiko zorrotzena, eta egiten dudana guztia arretaz begiratu dut, gero akatsak zuzentzeko.

Lotsa Xeleberrri aurkezten? Zelan da posible hori?

Bueno, lotsa hasierako momentuetan izaten dut, gero uxatu egiten dut. Izan ere, ni lotsatzen banaiz, galderak egiten diodana zelan sentituko ote da?

Nortzuk izaten dira lotsagabee-nak?

Ume txikiak eta nagusiak dira gure galderari lotsa barik erantzuten dietenak. Gainerako guztiekin larri ibiltzen gara; izan ere, inork ez du gura izaten telebistan agertu.

Zein izan da entzun duzun erantzun arraroena?

Arraroena ez dakit, baina xelebreenak nagusiek emandakoak izaten dira. Nik gauza bat galdetu, eta haiek beti beste zerbait erantzuten didate.

Bergarako jaietan ere izango da Xeleberrri, ezta?

Bai, Mendekoste jaietako hainbat ekitalditan izango gara. Gero, grabazio horiek batu eta *Xeleberrri* berezia egingo dugu.



Asteko programazioa/Maiatza 17-23

EGUBAKOITZA 17	ZAPATUA 18	DOMEKA 19	ASTELEHENA 20	MARTITZENA 21	EGUAZTENA 22	EGUENA 23
14:00 Berriak 14:30 Sarrera doan 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak	14:00 Xeleberrri Iparrorratza Joserra Eskibel eskoriatzarrarekin eskalatzera joango gara Patagonia aldera. Goibegirada Ibarreko turismoa eztabaidagai Mikel Irizarrek zuzentzen duen saioan.	14:00 Xeleberrri Iparrorratza Joserra Eskibel eskoriatzarrarekin eskalatzera joango gara Patagonia aldera. Goibegirada Ibarreko turismoa eztabaidagai Mikel Irizarrek zuzentzen duen saioan.	14:00 Berriak 14:30 Astebete 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak	14:00 Berriak Bergararik 14:30 Goienasport 15:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Xeleberrri jaietan 15:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 25. Euskadiko Dantza Txapelketa 15:30 Berriak
20:00 Berriak 20:30 Astebete Marijo Deogracias kazetariak asteko albiste nagusiak gainbegiratu ditu. 21:30 Berriak	Sarrera doan Soinuz blai Astebete	Sarrera doan Soinuz blai Astebete	20:00 Berriak 20:30 Goienasport Julen Iriondo kazetariak Ibarreko kirol taldeen gainbegiratu zabala egingo digu. 21:30 Berriak	20:00 Berriak Bergararik 20:30 Xeleberrri jaietan <i>Xeleberrri</i> -ko erreportariak Bergarako kaleetan zehar ibiliko dira jaietako giroa jasotzen. 21:30 Berriak	20:00 Berriak 20:30 25. Euskadiko Dantza Txapelketa Domekan jokatu den txapelketako final handia eskainiko dizuegu Bergarako San Martin plazatik. 21:30 Berriak	20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan Amagoia Lasagabaster kazetari eta aurkezleak hainbat proposamen egingo digu asteari begira. 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak


TELEBEGI/Maria Agirre

Bilbotarragoa?

ETBko lurretako langileak haserre daude leku aldaketa dela-eta. Bilboko Erakustazokara eramango dute telebista, eta horrek bereziki Bilbori egingo dio mesede, eta Durangori kalte. lurretako langileek etxeko albistegiaren bidez jakin ei zuten berria. Albistegian lanean zegoenen bat edo beste ere zur eta lur geratu zen albistea entzuterakoan. Baina abenduaren 28a urruti dago eta langileak mugitzen hasi dira. Leku aldaketaren aurka daudenez diotenez, gezurrak daude tartean. Hau da, egoitza handitzeko lurreta inguruko baserriarrek lursaila saldu nahi ez dietela gezurra ei da, Durangoko Udalak ere ez omen zuen horren berririk...


Kontuak kontu, Bizkaiko hiriburura joateko nahiko erraztasun izan dituztela, eta horiei muzin egin gabe, Bilbora doaz. Arrazoiak, bestek beste: jende gehiago mugitzen dela Bilbon, kanpotik datozenak Bilbora heltzen direla... Azkenaldian Bilbo da indartu beharreko gunea, eta erabakia horri erantzutera datorrela esango nuke. Telebistako langileei ekarriko die aldaketarik leku aldaketak, baina ikusleoi telebista bilbotarragoa ekarriko ote digu?

KAMERA AURREAN



“Meritu handia eduki dute gatzagarrek, herriari eustez. Gatzagak arrisku handia zeukan gutziz deshabitaturako herri bat izateko.”

Jerardo Elortza / MUKO irakaslea
“GOIBEGIRADA” (2002-05-15)



“Nik bizi izan nuen mundua hor dago oraindik. Aretxabaletara etortzen naizen bakoitzean, beti leku berera joaten naiz; gauzak ez dira gehiegi aldatu.”

Kepa Akizu / Eskultorea
“BERRIAK” (2002-05-15)

Eta zu, zergatik ez?

Telebistako **aurkezle** izan nahi baduzu deitu, atepak zabalik dituzu zure ibarreko **telebistan**.

Otalora Lizentziaduna 31 • ARRASATE • 943 71 2393



ETORKIZUNARI LOTUTA



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



ARRASATEko Kanpusa

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Industri Mekanikan Ingeniari Teknikoa
- Sistemen Informatikan Ingeniari Teknikoa
- Industri Elektronikan Ingeniari Teknikoa
- Industri Diseinuan Ingeniari Teknikoa
- Telekomunikazioan Ingeniari Teknikoa

Bigarren Zikloko Ikasketak

- Industri Antolakuntzan Ingeniaria
- Automatika eta industri Elektronikan Ingeniaria
- Informatikan Ingeniaria
- Industri Ingeniaria

GOIERRIko Kanpusa

- Industri Mekanikan Ingeniari Teknikoa

LEA-ARTIBALEko kanpusa

- Industri Mekanikan Ingeniari Teknikoa Polimerotan

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA



OÑATIko Kanpusa

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Gestio-Informatikan Ingeniari Teknikoa
- Zuzendaritzaren idazkaritza

Ziklo Luzeko Ikasketak

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua:
 - Finantz Zuzendaritza
 - Merkatal Zuzendaritza
 - Erakundeen Kudeaketa.

ELGOIBARreko kanpusa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua (lehenengo zikloa)

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA



ESKORIATZako Kanpusa

Lehenengo Zikloko Ikasketak

- Iraskaletzan Diplomatura: Haurren Heziketa Berezitasuna.
- Iraskaletzan Diplomatura: Heziketa Berezia Berezitasuna.
- Iraskaletzan Diplomatura: Atzerriko Hizkuntza Berezitasuna.

Bigarren Zikloko Ikasketak

- Psikopedagogian Lizentziatua.

Ziklo Luzeko Ikasketak

- Humanitate - Empresa Lizentziatua

Atzeskua

MAIDER OSA

Asier Altuna "Kixi"/Zinemagilea

Egidazu zure burua-
ren aurkezpen
labur-laburra?
Bergarakoa izan
arren, Donostian bizi naiz,
eta ETBn dihardut beharre-
an. Zineman luzez ibili naiz
lanean, urte mordoan.

**Urte mordoan?
Oraindik gaztea zara,
ordea!**

33 ditut.
**Aurkezpen txiki
horretan zure ezizenaren
nondik norakorik ez
didazu aipatu?**

Txiki-txikitatik deitzen
didate *Kixi*, eta herri guztiak

ezizen horrekin ezagutzen
nau. Ni baserrikoa naiz, eta
baliteke *kaxero* hitzetik
eratorritakoa izatea.

**Bi film labur dituzu
kalean dagoeneko, eta
orain, hirugarrena...**

Duela hiru aste grabatu
genuen, eta orain muntaia
hastekotan nago. Irudi
guztiak prest ditut. *Ahari
talka* du izena, eta Joseba
Sarrionandiaren *Ahari
topeka* ipuinean oinarritua
dago. *Ez gara geure baitako-
ak* liburuan aurki daiteke.
Oso ipuin zinematografikoa
da, gizakiaren animaltasuna
kontatzen duena.

**Txotx! eta 40 ezetz!
filmek bezala, Euskal
Herriko tradizio eta
ohiturekin lotura estua
duen filma hori ere.**

Bai. Gaia herri kirolekin
lotutakoa da. Lehen filma
kasualitatez sortu zen, eta
bigarrena, aurrenekoaren
arrakastaren haritik,
baserri giroan gustura ari
ginelako. Azkena, berriz,
esperimentu antzekoa izan
da niretako, bakarrik
zuzendu dut-eta. Bideoare-
kin grabatu dut, aurrekontu
txikiagoarekin, eta dezente
inprobisatuz egin dut.

**Film luze bat ere
idatzita duzu, ordea.**

Bai. Iaz, finantzaketa
jaso genuen Eusko Jaurlari-
tzatik, eta gidoia idatzita
dugu. Dena dela, oraindik
diru faltan gaude.

**Mexikora edo Venezue-
lara foiletoiak edo kule-
broiak egitera bueltatzeko
asmorik ez, ala?**

Oraingo ez. Bisitan
gustura joango nintzateke,

baina hemen oso ondo bizi
gara.

**Eta orain *Sorginen
Laratz* saioan.**

Telmori eta bioi deitu
ziguten, bigarren film laburra
egin ondoren. Ez genuen
espero horretara dedikatuko
ginenik. Nahiz eta telebistak
film laburrekin zerikusirik ez
izan, eskua hartu diogu.

**Gipuzkoako hiribu-
ruan ez duzu Bergarako
Oxanguren baserriaren
faltarik sumatzen?**

Jo!pe! Asko dakizu, e?

**Jakina! Kazetari ona
naizen seinale!**

Dezentetan joaten naiz
Oxanguren baserrira. Inoiz
ez dut Bergara alde batera
utzi. Garrantzitsua da
niretako Bergara.

**Eta era berean, Berga-
rako jaiak ere garrantzi-
tsuak izango dira, ezta?**

Jaietan nahiko ibilita
gaude. Lehenago, garrantzi-
tsuagoak ziren jaiak. Orain,
lagunekin bueltatxo bat, eta
bestarik ez.

**"Ahari talka film laburrak gizakiaren
animaltasuna erakusten du"**

**"Film luze bat ere idatzita dugu,
baina diru faltan gaude"**

**"Inoiz ez dut Bergara alde batera utzi.
Garrantzitsua da niretako"**

► Bergararra / 33 urte / Gidoigilea

PIPERRAUTSA

Tranbia

Joan den astean, *Eusko-
tran* irakurri nuen. Eta
pentsatu nuen kazetaria
erratu egin zela, *Euskotren*
idatzi nahi zuela. Izen hau
ezagutzen dugu, nahiz
gurean trenik ibili ez. Baina
kazetaria zuzen ari zen,
Euskotran asmatu dute
tranbia zerbitzua izendatze-
ko. Izan ere, tranbia hedatze-
ko asmoa dago. Eta Debagoie-
nean aspaldi ari da iragar-
tzen ibarra zehartuko duen
tranbia.

Trena maite dut. Gazte-
tan sarri erabiltzen nuen, eta
atsegin nituen haren kulun-
ka eta patxada. Baita ematen
duen mugitzeko askatasuna
ere, autobusak ez bezalakoa.
Horregatik poztu egiten nau
trabiaren berpizkundeak.
Areago jakinda gure ibarra
bete-betean hartuko duela.

Poza bai, baina badut
pena ere. Ibarreko tranbiak
lehenago trenbidea erabiliko
luke, eta hau gorde egin nahi
zen oinezko eta txirrindula-
rientzat. Horren alde egin
genuen, behintzat, talde
batek Urbina-Maltzaga
autobidea eztabaidatu
zenean. Eta oso harrera ona
izan zuen proposamenak.
Orain ezinezkoa gerta
daiteke hura gorde eta
trabiarentzat bide guztiz
berria egitea. Ulertzen dut,
eta galerak eragiten dit pena.

Baina ametsa galtzeko-
tan, izan dadila zerbait
irabazteko. Jar dezagun
Debagoienez tranbia
Metroaren antzera, sarri eta
arin. Ordu laurdenero
hartzeko moduan, nahiz gora
edo behera. Eta utz ditzagun
autoak geldi, ibarretik
irteteko ez bada. Horren
truke bai, datorrela tranbia!

MIKEL IRIZAR

Eraman dotoretasuna eta plazerra zure etxera

**Bainu altzariak eta osagarriak.
Hidromasaje bainerak eta kabinak.**

gelatza S.L.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51